



«Konponbidearen
parte izan
behar du ETAk,
arazoaren
parte delako»

**MAIREAD
CORRIGAN
MAGUIRE**

The Peace People
mugimenduaren
sortzailea

- **Laborategiko animaliak** Milioika aleren sufrimendua zientziaren izenean
- **Marikita Tambourin, Iraun** narrazio-liburuaren egilea: «Gu ez omen gara biktimak»
- **Bunpada Sound** Kultura ugaritako koktel musikala
- **Mikel Antzaren Ospitalekoak** Pertsonaia versus idazlea
- **WiFia eskolan** Prebentzioz, kablea eskatzen hasi dira batzuk



Transgenikoak ezbaian

Mahai-ingurua

Helen Groome

(EHNEko kidea)

“Transgenikoei buruz dagoen ikerketa independentearen gabeziak kezkatzen gaitu”

Mertxe de Renobales

(EHUko ikertzailea)

“Transgenikoekin gauza askotarako balio dezakeen lanabes bat irabazi dugu”



Helen Groome



Mertxe de Renobales

Iritzia

Mario Fernandez

(Osalde)

Amaia Ortiz

(Neiker-Tecnalia)

- Zein arrisku dute gure osasunerako?
- Ondo dakigu nola erreakzionatzen duten naturan?
- Posible da nekazaritza transgenikoa eta ekologikoa elkarrekin bizitzea?

- 4 Deabruaren abokatua: Mariasun Landa.**
Sustrai Colina.

Iritziak

- 19 Gora Pro Nobis.** Asisko Urmeneta.
20 Ttakun (h)errenka. Anarkotristura.
José Luis Padrón.
21 Sorginak baziren. Xipri Arbelbide.
Futbol. Joxemari Ostolaza.
22 Nafar analogikoak. Pili Yoldi.
Kondoien Plaza. Edu Zelaieta.
24 Bertso berriak. Krisiari jarriak. Imanol Lazkano.

Erdiko kaiera

- 25 Bunpada Sound. Euskal Herri berriaren taupadak.**
Álvaro Hilarío Pérez de San Román.
28 Mikel Antzak eta Zubietak elkar topatu zutenekoa.
Gorka Bereziartua.
29 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
30 Liburuak. Xabier Etxaniz Erle.
31 Diskoak. Iker Barandiaran.
32 Ezpalak. Jon Torner.
33 Abarrak. Gorka Bereziartua.
34 Zientzia eta teknologia. Joxerra Aizpurua.
35 Landareak. Jakoba Errekondo.
36 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.



Urtero milioika animalia erabiltzen dira ikerketarako.

Termometroa

- 41 Aeronautika. Industria militarri loturiko etorkizuna.** Daniel Udalaiz.
44 Nafarroako Kutxa. Hizkuntza kartara. Saioa Labaka.
46 Bero-beroan. Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.
48 Net Hurbil. Zabbaleen jendea, Kairoko zaborren aprobetxatzaileak. Pello Zubiria.

Azkena

- 50 Hedabideen argi-itzalak.** Iñaki Mendiguren.

37 | WiFia eskoletan | Urko Apaolaza

Eskola 2.0 Planaren baitan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak WiFi teknologia erabiliko du. Askoren aburuz mikrouhinek eragin kaltegarriak izan ditzakete osasunean; aldiz, Jaurlaritzak dio ikasgeletan jarri duten WiFiak ez duela arriskurik. Eztabaida zientifikoa da, baina muga hori gainditu du. Artikulu honetan, besteak beste, Bitor Goñi Kutsadura Elektromagnetikoaren Aurkako Euskal Herriko Plataforma kideari egindako elkarrizketa irakur daiteke.



5 | Laborategiko animaliak

Unai Brea

10 | Pertsonaia: Marikita Tambourin

Miel A. Elustondo

15 | Mairead Corrigan Maguire | Alberto Pradilla

The Peace People mugimendua sortu zuen Belfasteko emakume honek eta Bakearen Nobel saria du. Ipar Irlandako adibidea hartuta, bakea oinarri duen bidearen aldeko apustua egiten du gatazkentzat. Baita Euskal Herriaren kasuan ere.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Unai Brea, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Garbine Ubeda. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L. Argia.com: Lander Arbelaiz, Axier Lopez, Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetzak: Olatz Korta. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea. Azaleko argazkia: Juan Carlos Ruiz/Argazki Press.

 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA SAILA Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza diruz lagundua	 GIPUZKOA zurekin, aurrera euskaraz bai kutxa
--	---



“Haur literaturari alfonbra gorria falta zaio”

Mariasun Landa

Ohe azpiko krokodiloak galtzerdi suizida irensten duenean...

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Hara, Parisera 68ko urrian joan zena!

Beti berandu! Askatasuna ez ezik nire burua topatu nuen. *Fille au père* ez, *bonne à tout faire* ginen, baina ederra izan zen bizimodua nahi erara biziz aurrera ateratzea.

Maiteminduei beti geratzen zaie Paris. Bertan bizi izandakoei?

Meka aurkitu nuen Parisen eta kulturalki frantses-zalea naiz. Orduan eman nituen pausoak eman nituelako naiz naizen bezalakoa.

Haur literatura bigarren mailakoa kontsideratzen dela jakingo bazenu...

Haur literaturari glamurra falta zaio, alfonbra gorria, baina ukaezina da geroz eta garrantzia sozial handiagoa duela. Kanon akademikoetatik kanpo gaude, komunikabideetan tarte urria daukagu, baina zer gertatzen da Harry Potter-ekin?

Haurrak tontotzat hartzen ez dituen literaturak ere saltzen duela.

Ez dakit haurrak tontotzat ala jainko txikitat dauzkagun, baina helduon hartzaro idealizatu eskaini nahi zaie askotan, eta literarioki dena txikituta, dena papilan. Ez ba! Gerora irakurle gaituak izan nahi baditugu eskailerak igotzen lagundu behar diegu.

Esadazu ez dagoela soiltasuna baino konplikatuagorik.

Haur literaturaren balio estetikoak hizkuntza-aren tratamenduan datza. Nola heldu sakonera ahalik eta idazkera gardenenarekin? Ez

dago gai taburik, nola kontatu asmatzen baduzu.

Berriz arintasunaren eta arinkeraren arteko desberdintasunarekin?

Haur literaturak darabilen umorea eredugarria zait. Euskal literaturan, oro har, askoz hobeto landu da umorea haurrentzat helduentzat baino. Zergatik kamusten da umorea helduentzat idaztean?

Helduek sari ospetsuen irabazleei buruzko umorea egiten dutelako!

Sari horiek beti jarriko dira zalantzan, batez ere besteek jasotzen dituztenean.

Inozoa ni, ahaztuta neukan Euskadi Saria eta Espainiako Sari Nazionala irabaziak dituzula.

Galdu ala irabazi, sari horiek ez dira serio hartu behar. Daukaten garrantzia daukate, ez gehiago. Hori diot, galtzaileek ez ezik, irabazle askok ere saria erlatibizatu behar luketelako.

Ez izan hain apala, hain inkonformista...

Ezinbestekoa da literarioki inkonformista izatea. Literaturak emoziotik badu, geroz eta zorrotzago eta koxka bat harago idatzi nahian ari zarelako da. Oso erraza da errepikatzea. Pentsa, batzuetan horixe eskatzen dizute.

Inkonformismo literarioaz ez, eguneroko bizi-tzaz ari nintzen ni.

Galtzerdi suizida bezala inkonformista naiz, baina urteak aurrera joan ahala, inkonformismoa geroz eta erlatiboagoa dela iruditzen zait. ■

• ASTERO GAIA •

Laborategiko animaliak

Momentuz ez dira libratuko

Urtero, milioika animalia erabiltzen dira ikerkuntzan. Batzuek nahiago lukete, ordea, “erabili” neutroa baino, “torturatu” eta “hil” esatea. Errealitate latza hori da: animalien sufrikarioa izan ohi da aurrerapenaren ordaina. Urrats asko egin dira ahalik eta animalia gutxien erabiltzeko eta horiei ahalik eta kalterik txikiena egiteko xedearekin, baina ikertzaile gehienek diote oraingoz ezinbestekoa dela haiekin zenbait proba egitea.

UNAI BREA

JANET STEPHENS



ZERBAITEN NAZIOARTEKO EGUNA ez den data bat aurkitzea baino gauza zailagorik ez dago. Apirilaren 24a laborategietako animaliena izango da, eta horregatik, seguru asko, hedabideetan protagonismo apur bat bereganatuko du normalean informazioaren *mainstream*-etik aparte samar egoten den eztabaida batek. Eztabaida etikoa da, azken batean: zilegi da animaliekin esperimentuak egitea?

Galdera horri ezetz erantzuten diotenen ahotsa nabarmenduko da, batez ere, apirilaren 24aren kariatara sortuko den adierazpen oldean. Mundu osoan, makina bat elkarteek eskatzen du bertan behera uzteko animaliak erabiliz egiten diren ikerketak. Euren argudio nagusia sinplea da: ezerk ez du justifikatzen, ezta zientziaren aurrerape-nak ere, animalia batek tratatu txarrak edota heriotza jasatea, pertsona batek halako patua izatea justifikatuta ez dagoen bezala. Eta animaliarik ez erabiltzea galga izango bada ikerkuntzan, bada, izan bedi.

Zientzialariengan erabat gailentzen den iritzia bestelakoa da: oraindik beharrezkoak ditugu, tamalez, animaliekin egindako saiakerak. Garrantzitsuak dira “oraindik” eta “tamalez” hitzak; animaliak erabiltzea zilegi da baina ez edonola, adierazten dute.

Animaliekin esperimentazioa egitearen aurkakoek diote ez dela behar beste ahalegin egiten metodo alternatiboak bilatzeko, gaur egungo ikerkuntzaren ardatzetako bat, teoriar, hori den arren

Beheko argazkian, DefensAnimal.org elkartearen protesta ekintza bat. Elkarre horretako kideek espezieismoa salatzen dute, hau da, beste espezie batekoak izateagatik milaka animaliak jasaten dituzten diskriminazioa eta tratatu txarrak.

Badira jarrera hori defendatzeko propio sortutako elkarteak ere; nonbait, laborategietan animalia bakar bat nahi ez dutenei erantzuteko jarioak dira. Horietako batengandik –AEBetako Ikerkuntza Defendatzeko Elkarte– jaso dugu honako argudioa: “Ahalegindu arren, ikerketa askotan badira saio-hodi batean ezin egin daitezkeen probak, ez baita nahikoa molekulek, zelulek, edo ehunek, bakarka, zer jarrera duten jakitea. Gorputz bizi bat zatien bilduma hutsa baino askoz gehiago da, eta guk jakin behar dugu zer nolako elkarrekintzak dituzten zati horiek”.

Ez da etikoa animalia bat hiltzea guk erabiliko dugun sendagaia sortzeko, diote animaliekin egindako esperimentuen aurkakoek. Ez da etikoa sendagai berri bat ematea gaixoei seguru ez bagaude ez diela kalterik egingo, beraz animalien probatu behar dira lehenago, erantzuten dute Ikerkuntza Defendatzeko Elkartearen gisa-koe. Norberak jakingo du zein aldetara lerratu. Utz dezagun horretan beraz, eta ostera errepara diezaiegun, arreta handi-goaz oraingoan, “oraindik” eta “tamalez” hitzei, azken beltzean horien atzean ezkutatz dena baita gakoa auzi honetan.



DEFENSANIMAL.ORG

Kosmetikoak animalien probatzea, debekatuta Europar Batasunean



Sendagai berriak garatzea gauza bat da, eta beste bat geure burua edertzeko produktuak sortzea. 2009ko martxotik, eta hasierako asmoekiko atzerapenez bada ere, Europar Batasunean (EB) debekatuta dago animalien probatuak izan diren produktu kosmetikoak merkaturatzea. Galarazita dago, halaber, produktu horien testak egitea animaliekin, zenbait proba motaren kasutan izan ezik –horiek 2013an debekatuko dituzte–. Izan ere, 2004tik ezin izan da egin era horretako saiakerarik guztiz garatuta dauden produktu kosmetikoekin. Osagaiekin edo osagai konbinazioekin bai, baina metodo alternatiboak sortu arte besterik ez. Iaztik, ezta hori ere. Legeak ez du inoiz behartu mota honetako artikuluek gure osasunean eduki dezaketen eragina animalien probatzeaz, baina enpresa askok hala egin dute euren borondatez, Altarriba Fundazioak salatzen duenez.

Hiru R-en printzipioa

Aspaldi zabaldua dago laborategietan erabiltzen diren animalien kezka. Haien sufrimendua ahal den neurrian murrizteko borondatea, alegia. Hala adierazi digu Gloria Letek, EHUKo Animalien Ongizaterako Etika Batzordeko presidenteak: “1959an, William Russell eta Rex Burch biologoek hiru R-en printzipioa aldarrikatu zuten, eta esango nuke horrekin batera hasi zirela zientzialariak animalien ongizateaz arduratzen. Gaur egun egiten den ikerkuntza guztiak printzipio hori du ardatz”.

Hiru R-ak ingelesezko *replacement*, *reduction* eta *refinement* hitzen lehen letrak dira (ordezkatzeta, murriztea eta fintzea). Ahalik eta animalia kopuru txikiena erabiltzea, ahalik eta kalte txikiena egiten duten teknikak baliatzea eta ahal den guztietan metodo alternatiboak usatzea, horra ardatz hirukoitza.

Hiru alderdiek lotura estua dute elkarrekin. Fintzean egindako hobekuntzek beste bietan ere aurrera egiteko aukera ematen dute, eta ordezkapenak, esan gabe doa, berez dakar murrizketa. Ez dago hiru R-etan aurrerapausoak lortzeko xedean ikerketa-lerro berezirik, baina Leteren esanetan, azken urteotan garpian handia eman da eremu honetan. Fintzean, batez ere. Eta hori da, EHUKoaren ustez, hiruretan garrantzitsuenak.

Laborategietako animalien erabilera arautzen duen legediak hiru R-ak ditu oinarri. Nazioartean nahikoa legedi uniforme da,

bidenabar esateko. Europar Batasunean FELASA erakundea arduratzen da, aholkularitza lana eginez, herrialde guztietan beteko diren gutxieneko baldintzak egon daitezen. Hortik aurrera, estatu bakoitzak nahi beste gogortu dezake legea. Hala sortu dira, berbarako, EHUKoa bezalako etika batzordeak. Euskal Herrian, esperimentazioarako animaliak darabiltzan orok batzordea eratu behar du, edo, horretarako aukerarik ez badu –enpresa txikia izateagatik, adibidez–, beste zentro bateko batzordeari aurkeztu behar dizkio animaliekin egitekoak diren ikerketa-proiektu guztiak, hark onespina eman diezaien. Labur esanda, eta igarriko zenutenez, ikertzaileek une oro hiru R-en arabera jokatzeko dutela ziurtatzea da batzordeon zeregina.

Milioika ale urtero

R eta guzti, animalia kopuru eskerga erabiltzen da laborategietan. Ez da erraza datu zehatzak ematea. Kopuruak asko aldatzen dira iturriaren arabera, eta sarritan eguneratu gabeko datuak dira hara-hona dabiltzanak. Bestalde, zifra ofizialek ez dute benetako errealitatea adierazten, animalien defentsan diharduen Altarriba Fundazioaren iritziz: “Laborategiek eurek ematen dituzte datuok, askotan, eta batzuk benetan trebeak dira benetako kopuruak ezkutatzeko. Esperimentu militar sekretuak ez aipatzearen”, azaldu digu Matilde Figuerola komunikazio-buruak. Altarribak dio urtero, eta ofizialki, 100 milioi



inguru animalia erabiltzen direla munduan. Kontuan hartu behar da zerrendatik kanpo daudela ia ornogabe guztiak, legeek ez baitiete aitortzen animalia izaera. Hala ere, ornodunak erabiltzen dira gehien, saguak eta untxiak batez ere.

Altarribaren webgunean irakur ditzakegu 2003. urtean Europar Batasunak zabaldutako datu batzuk (1999koak dira): guztira zortzi milioi animalia hil ziren laborategietan, eta horietatik erdia sendagaiak sortzeko erabili ziren. Gaitz erdi, eta barkatu gustu txarreko ironia, sendagai horietako batzuk al baitaritzan erabiltzekoak ziren. Bi milioi eta erdi alek biologia-ikerketetan utzi zuten bizia, eta 770.000 inguruk kontsumo-gaien toxikologia probetan. Ordezkapena eta murrizketa ardatz izanagatik, legediak behartzen du zenbait ikerketa-lerrotan animaliekin probak egitera. Fundazioaren arabera, erabilitako animalia kopuruak gora egin du nabarmen ingeniariaritzaren genetikoarekin zerikusia daukaten ikerketetan, eta seguruenik hazkundera ez da etengo etorkizun hurbilean. Hiru R-ena ez dago hain argi, hauei jaramon egitera.

Ahal beste ordezkatzen da?

Izan ere, animaliekiko esperimentazioaren aurka daudenen jarrera ez da erreportaje honetako bigarren paragrafoak aditzera eman lezakeen bezain bakuna. “Gu ez gaude zientziak aurrera egitearen aurka”, esaten dute maiz, inork galdetu gabe kasik. Argi daukate ez litzatekeela animalia bakar bat ere

Untxiak eta saguak dira laborategietan gehien erabiltzen diren animaliak, nahiz eta beste asko ere badiren.

Neurologia ikerketetan, esaterako, tximinoak erabiltzen dira. Alabaina, tximu handiei babes berezia emateko egitasmoak existitzen dira, genetikoki gugandik oso hurbil daudelako.

Beste muturrean ornogabeak daude. Legeak ez die aitortzen animalia izatea ere, eta beraz, ikertzailearen borondatearen arabera da haien kasuan hiru R-en printzipioa aplikatzea edo ez.

erabili behar laborategietan, ikerkuntzarako ondorioak edozein direla ere, baina ez dira mugatzen lelo hori behin eta berrirori errepikatzen. Aitzitik, talde batzuek aski landua dute metodo alternatiboen gaia, hau da, ordezkapena. Eta salatzen dute ez dela egiten eremu horretan egin daitekeen guztia. “Egiten diren esperimentu guzti-guztietarako alternatibarik ez dago, baina bai gaur egun erabiltzen direnak baino askoz gehiago”, salatzen du Luis Perezek, DefensAnimal.org GKEko presidenteak. Haren aburuz, ordezkapen-metodo asko ez dira indarrean jartzen badirelako hori oztopatzen duten interes ekonomikoak.

Ildo beretik mintzatu zaigu Matilde Figuerroa: “Laborategi askorentzat merkeagoa da animaliekin lan egitea, besteak beste, erabiltzeaz gain, eurek ere saldu egiten dituztelako hazten dituzten animalietako batzuk. Eta ez da ahaztu behar laborategiok animaliekin jarduteko atonduta daudela. Uste duzu hori guztia kenduko dutela, metodo berriak erabili ahal izateko beharko lituzketen instalazioak jartzeko haren ordez?”.

Fintzean ez hain fin

Ordezkapenaren R-an behar beste indar jartzen ez dela salatzeaz gain, fintzearenean ere alde ilun asko ikusten dituzte animaliekin esperimentatzearen kontrakoek. Laborategi gutxi batzuetan paratutako ezkutuko kamerak ikertzaileen edota animalien zaintzaren ardura zutenen jarrera lotsagarriak agertu



Ezkerrean, benetako igel baten disezioa, eta eskuman, igel baten disezio birtuala. Azken urteotan gero eta gehiago erabiltzen dira eredu informatikoak, unibertsitate ikasleak trebatu daitezten. Europar Batasunak emandako datuen arabera, 1999. urtean europar laborategietan hil ziren zortzi milioi animalietatik, 87.000 inguru erabili ziren irakaskuntza eta trebakuntzarako.

izan dituzte. Irudiak Interneten topatzen dira erraz, eta ez dira atseginak. Horrez gain, legeak baimendutako praktika batzuk bereziki ankerrak direla diote. Adibide aipatuenetakoa Draize-n testa izaten da: hankak lotuta dituen untxi baten begiei, probatu nahi den substantzia jaurtitzeko, behatzeko ea norainoko suminkortasuna eragiten dion. Kritika asko jasotzen duen beste saiakera bat LD50 testa da: substantzia baten toxikotasun maila neurtzeko, animalia talde bati ematen zaio —janaraziz, arnastu araziz edo injektatuz—, aleen erdia hil arte. Adibide gehiago eman genezake, baina balio bezate bi horiek.

Bitxiena da, esperimentuok kritikatzeko dituztenen ikuspegitik, haien emaitzak ez direla zientzialariek dioten bezain erabilgarriak. Substantzia batek sagu batengan efektu bat eragiteak ez du esan nahi gizakiengan efektu bera izango duenik. Eta horren zenbait adibide ematen dute.

Horren guztiaren aurrean, animaliekin iker-tzearen aldekoek argudiatzen dute egia dela gauzak ez direla beti modu egokienean egin, baina horrek ez diola baliorik kentzen animalien erabilerari. Hauek ere badute euren tesiak defendatzeko balio dien zerrenda, besteena baino mardulagoa: animaliak usatzeari esker medikuntzak egindako aurrerakuntzena.

Kritikak kritika, hiru R-en printzipioak helburu ideal bat gordetzen du bere baitan: erabateko ordezkapena. Matilde Figuerok eta Luis Perezek bihar bertarako nahiko luketena, hain zuzen. Baina hori ez da gertatuko, jakina. Etikari bizkarra emanda dihardutenak albo batera utzita, zientzialariei ere gustatuko litzaieke ametsa gauzatuta ikustea, baina ez ikerkuntzaren kaltetan. Presa gabe, beraz. Gloria Letek dioenez, “ez dut uste nik ikusiko dudarik erabateko ordezkapena lortuko den unea”. Apirilaren 24 asko igaro beharko dira helburua lortzerainoko bidean, inoiz lortuko bada. ■

Marikita Tambourin

«Hil aitzin argitaratu nahi nituen gertatu zaizkigunak»

Iraun narrazio liburuak ageri duen poema baten izena, “Beldurra”. Alabaina, izugarriago da ondotik datorrena: “Beldurraren poema hau idatzi eta gertatu zen, gertatu behar zena. 1979ko urtarrilaren 13an, larunbata goizarekin, senarra tirokatu zuten. Nire maitea ez zen hil, baina handizki kolpatua izan da”.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Iraun liburuaren kontrazalean irakurria: “Soka luze batek lotzen ditu liburu honetako idazkiak, hitz bakar batek laburtzen dituenak: Iraun! Bizirik iraun, euskaldun iraun, gure hizkuntza iraunaraziz. Irauteko borroka baten lekukoak dira...”. Horiek editoreak hautatu dizkigun hitzak liburuaren aurkezteko. Zergatik iraun, zergatik ez bihotza betean bizi?

Euskaldunok jasaten dugun egoeratik dator iraun hitz hori. Behartuak gara iraunez bizitzera. Iraun behar dugu, gure mintzaira iraunaraziz, iraun behar dugu euskaldun bezala, eta batzuetan bizirik iraun behar da egoera biziki gogortzen denean, garai batzuetan gertatu zen bezala, Iparraldean ere! Bizirik zaude, irauten ari zara. Bistan da, ez da arras bizi zoriontsua, ez du horren itxura ematen. Liburua ere nahiko gogorra den egoera baten ispilu da.

Aski da bizirik irautea?

Hilez gero ez du deus egiten ahal, deus ez!

“1979ko urtarrilaren 13an, larunbata goizarekin, senarra tirokatu zuten. Nire maitea ez zen hil, baina handizki kolpatua izan da. (...) Geroztik gauaz ezin dut lorik egin, ez dut

gehiago esperantzarik. Ez dugu gerorik, gurea egina da”.

Hori egiazki gertatu den zerbait da. Ni mugaz bestaldeko iheslari batekin ezkondua naiz, eta aipatu duzun data horretan tirokatu zuten Donibane-Lohizunen. Atentatua gertatu zen eguna kontatzen dut liburuaren erdian, pasarte batean.

Egunkari baten eitea du liburuak, testuak hainbat urtez tartekaturik ageri badira ere. Atentatuaren aipua, hura gertatu urte berekoa dugu, 1979koa.

Bai. Eleberri bat idatzi nahi nuen gertakari hori abiapuntu harturik. Behin eta berriz saiatzen nintzen. Beti esaldi horrekin hasten nintzen: “Maitea, tiroz hil naute!”, berak hori erran baitzidan, hila balitz bezala mementu horretan. Liburu oso bat idatzi nahi nuen horretaz, baina sekula ez naiz heldu. Testu hori baizik ez da gelditu, egun horren kontakizuna dena eta bere ondorioak. Nahiko gogorra izan da horren idaztea, nahiko gogorra ordenagailuan pasatzea, nahiko gogorra berriz irakurtzea... Gertakari izigarri samina da niretzat.

“Nahiago nuke ez baldin bazen sekulan izan 1979ko urtarrilaren 13rik, larunbat hotz eta euritsurik”.

Ez dut ahazten ahal. Egun hori ez dut sekulan ahantziko, zeren eta nire bizi guzia aldatu zen goiz horretan. Egia da: urtarrila zen, neguan ginen, negu mina, hotz egiten zuen eta euria jauts ahala ari zuen... Donibane-Lohizunetik Baionako ospitalera joan nintzenean —nire autoan, bakarrik—, oroitzen naiz euri horretaz, euria ari zuela eta ari zuela.

1979ko urtarrilak 13 hori iragana da, ala urtero da berritzen?

Orain badira hogeita hamaika urte gertatu zela. Urtero, eta hilabete guzietako 13an oroitzen naiz egun hartaz.

Arantza duzu, kendu ezina?

Hori bera, izigarri min ematen duen arantza. Bihotz barnean sartua den zerbait da, ahantzi ezina dena.

“Urtarrilaren 13 madarikatu hartan utzi genuen etxera ez ginen sartu ahal izan uztaila arte. Bigarren haurra ekainean sortu zitzaigun. Hogeita hamahiru urteko ama gaztea nintzen. Gure apartamendura itzuli ginen bi semeekin, zaharrenak lau urte zituen eta txikiena bularrean zen. Beren aita ezindua zen: epileptikoa, kasik itsua, ezkerreko eskua xehatua, gorputza tiroz zulatua. Eta gure bizia betirako aldatua izan zen. Baina gu ez omen gara biktimak!”.

Hori idatzi dut, zeren eta, ofizialki, ez frantses estatuak, ezta espainolak ere, ez baitute

Nortasun agiria

Marikita Tambourin (Baigorri, 1946). Irakasle izana da 1970ean hasi eta 2007an erretiroa hartu arte. Donibane-Lohizuneko eta Baigorriko ikastoletan eta Donibane-Garazin —hezkuntza nazionalean— jardun zuen lanean. Irakasle ez ezik, idazle da. Beti idatzi izan du, eta *Maiatz* aldizkarian agertu zituen lehenbiziko poemak 1982an, Mari Ameztoi ezizenez, ahalkez. Literatur lanak ditu *Kania*, *Abu ala Ali*, *Singapurreko gutunak* eta iazko abenduko *Iraun*, Michel Irigoyenen irudiek laguntzen dutena. Etnologia ikasketak eginik, hainbat azterlan burutu ditu, eta besteak beste, *Euskal deituren kronikak* liburua. Kolaborazio franko eginak ditu euskal irratietan eta *Herria* aldizkarian.





ene senarra ezagutu biktima bezala. Ez omen da frogatua biktima bat dela. Atentatuaren egileak ez dira inoiz jutuak izan, ez da sekulan auzirik izan, ez Frantzian, ez Espainian. “Gu ez omen gara biktimak”. Horrek areagotzen du sentitzen ahal dugun mina, zeren eta ezagutua ez den biktima bati –jakina da, psikologoek aztertzen duten gauza da hori– oraindik zailagoa zaio jasatea gertatu zitzaiona. Niretzat hori biziki zaila da. Testu horretan azpimarratu nahi izan dut gure bizia betirako aldatua izan zela, bai senarrarena, bai nirea, bai haurrena ere... denek atentatuaren ondorioak jasan ditugula, baina ez gara ezagutuak biktima bezala.

Zer izan duzu testuok idaztea, terapia manera bat, menturaz?

Orain biktimei eskaintzen zaizkie terapiak, psikologoak eta abar, baina guk ez dugu holakorik izan. Bistan dena, idaztea izan da terapia bat. Gertakariak nolabait agertu behar dira, atera. Bestenaz, zure barnean gordetzeak... Hiltzen ahal zara deus erran gabe sekulan nehoi, baina oraindik kaltegarriago dela diote psikologoek. Idazten duen norbaitek agertzen ditu sentimenduak, hain xuxen nolabaiteko terapiaren

Maiatzeko arratsaldea I

Iraun-etik: “Maiatz hondarreko arratsalde eguzkitsu bat da, deia bero egiten du. Emazte gaztea Hondartza Handia ferekatzen duen itsaso urdinari begira dago. Hitz egiten ari da, nahiz eta bakarrik den. Ez baita aski aberatsa telefonoa izateko etxean, Miarritzeko kabina batetik egiten ditu deiak senar kolpatuaren berriak emateko. Luzaz egoten da adiskideekin kalakan. Behingoan, lasai sentitzen da, eguzki epelaren eragina, behar bada?”.

egiteko. Idazle guztiek egiten dutena da, uste dut.

Zergatik argitaratu?

Gure herritarrek ez dakite besteei zer gertatu zaien, edo zer gertatzen zaien, eta batzuek behintzat izan behar dute kuraia holako gauza batzuen agertzeko. Nahiz eta oso berandu den, guretzat berantegi izan aitzin, ni hil aitzin, nahi nituen horiek argitaratu.

Eleberria egin nahi zenuen. Alabaina, testu laburretan antolaturik eman duzu liburua.

Gai horretaz luzaz idaztea ezinezkoa zait; psikologikoki, erran nezake. Idatzi ditut beste narrazio batzuk, liburu hau baino luzeagoak, amodio istorioak, ezberdinak, nolabait ihes egiteko egoerari... Orain, garaia jin da, baina testu laburrak baizik ez ditut ateratzen ahal gai horri buruz. Ezin nuen besterik egin... Oso gogorra da horretaz idaztea; hitz egitea ere. Ezin dut gehiegi hitz egin horretaz.

“Biziaren alde” testuan diozu: “Euskaraz izkiriari nahi nuke bizia goraiatzeko, nahiz eta hitzak frantsesez heldu zaizkidan gogora. Zein ederki eta errazki egin nezakeen erdaraz!



AZKEN HITZA

Iraun

“Iduri du gozo dela deus ez egitea eta gorena dela erretiroa. Ohean egon alferkerian, egunkariak eta liburuak irakurri, tea hartu (bixkotxekin!), telebista ikusi, hitz batzuk idatzi karnetean, argazkiak sailkatu ordenagailuan, luzaz apaindu ateratzeko, hitzaldi edo inaugurazio batera joan, baita jatetxera edo zinemara, nahikerian egon kafe bateko terrazan turisten joan-jinari begira, lagunekin topo egin, irratia entzun gauaz, baratzeko liliak loratzen eta zimeltzen ikusi, urtxintxa bat behatu hurritz handian, sagarrondo zozoak eta etxe barneko muskerrak ehizatu. Zuhurtziaren eta onarpenaren aroan sartua ote naiz? Pentsamendurik gabe bizi, gehiegikeriarik gabe, arrakastarik gabe (beste sexuaren baitan!) heriotza arte. Bizi ordez, iraun, zer da: zoriona ala lazdura?”.

(*Iraun* liburuaren azken testua, frantsesez jatorriz)

Euskal Argentina

“Amaren aldetik familia dut Argentinan. Nire izena —hain arraroa iduritzen zaiona jendeari— handik heldu zait, zeren eta amak bazuen lehengusu bat han, neska gazte bat, Baigorriara bisitan heldu zena eta hura hola deitzen zen, Mariquita. Oroitzapenez eman zidan izen hori amak, baizik eta ortografia aldatu batekin, erdi frantsesua erdi euskaldundua, ‘Marie-kita’, ene amak asmatu duen ortografia aski bitxia. Emigrazio gaia interesatzen zait. Argentinan nituen kusiak berriz aurkitu ditut Euskal Argentina elkarteari esker”.

eta ingurumen gutxiago du euskaraz mintzo den jendeak besteekin harremanak izateko gure hizkuntzan.

Nafarroa Beherean ere hori da egoera?

Oraindik euskaldun itxura duen eskualdea da Baxenafarroa, baina edozein tokitara joan eta kasik ezinezkoa da euskaraz hitz egitea. Bakarrik elkar ezagutzen duen jendeak hitz egiten du euskaraz. Norbaiti mintzo zara euskaraz, eta frantsesez erantzungo dizu, ez bazaitu ezagutzen. Harrigarri da hori! Oso zaila da jasateko.

Euskara irakasle izan zara urte askoan. Zer dakar ondoko belaunaldiak?

70ean hasi nintzen euskara irakasten Seaskan. Jatorriz Iparraldekoa den lehen andereñoa izan nintzen. Donibane-Lohizuneko ikastolan nintzen andereño. Egiazki zerbait egin nahi nuen euskararentzat. Nahiz eta ez genekien zertara helduko ginen eta zer ondorio izango zuen horrek. Sinesten genuen, denek, euskararen erakustea —batez ere zabaltzen baldin bazen herri guzietaratu—, euskararen onerako izango zela. Ondorio onak eman ditu, baina orain bada-kigu ez dela nahikoa haurrei euskara erakustea, erabili behar dela, eta hor dela arazoa: gero eta gutiago dira haurrak euskaraz hitz egiten dutenak. ikasten dute baina ez dute aukera handirik hitz egiteko, salbu eta elkarren artean direnean, eskolan, familian eta abar.

Hegoaldeko ikastola eta herri ikastetxe askotan, euskaraz eskolatuagatik ere gaztelaniaz mintzo dira ikasleak. Nola da hori hemen?

Iparraldean arazo bera dugu, frantsesarekin. ■

• Mairead Corrigan Maguire •

«Bazterketarik gabeko elkarrizketa da bakea lortzeko bidea»

The Peace People mugimendua sortu ostean, Mairead Corrigan Maguire-k (Belfast, 1944) Bakearen Nobel Saria irabazi zuen 1976an, Betty Williamsekin batera. Britainia Handiko Poliziak Maguireren ilobak autoarekin harrapatu eta hil zituen, IRAko militante bat jarraitzen ari zenean, eta haien amak bere buruaz beste egin zuen gutxira. Harrezkero, The Peace People sortu eta bake mugimenduen bozeramaile bilakatu da Maguire.

ALBERTO PRADILLA

Argazkiak: Juan Carlos Ruiz / Argazki Press

Azken urteetan, Palestinako gatazkaren konponketaren aldeko mugimenduetan aritu da Mairead Corrigan Maguire. Iragan ekainean, *Free Gaza* itsasontzian sartu eta Israelgo armadak atxilotu zuen. Egun, Israeliek Palestinan duen jarrera epaitzea helburu duen Russell Auzitegiko kide da. Ipar Irlandaz, Palestinaz eta Euskal Herriaz mintzatu gara berarekin.

Mugimendu bakezaleek zer nolako ekarpena egin dezakete Palestinako gatazkan?

Urtero joaten naiz Palestinara, bereziki Bilinera, Ramalaren ondoan dagoen herri txiki batera. Bilinen, okupazioaren aurkako mugimenduak indar handia hartu du eta beste toki batzuetara ere zabaldu da; desobedientzia zibilean oinarritzen da eta biolentziarik gabeko bideak defendatzen ditu. Oso mugimendu interesgarria da: biolentziarik gabeko erresistentziaren alde egitea erabaki dute, okupazioaren biktimak izan arren eta giza eskubideen eta nazioarteko legeen aurkako etengabeko abusua jasan arren. Izan ere, beste aukera bakarra pistola hartzea da. Ipar Irlandan biolentziarik gabeko mugimendua sortu genuenean mezu argia bidali genuen: eskubideak defendatzeko mobilizazioak egitea eskubide bat da. Azken finean, erakunde politiko eta sozialen bitartez, eta mobilizazioen eta antolakuntzaren bidetik, bestea konbentzitzen ahal da.

Mairead Corrigan Maguirek 2008an Donostian eskainitako hitzaldian ateratakoak dira argazkiak, biolentziaren aurkako jardunaldi batzuen baitan.



**"Ipar Irlandan biolentziarik
gabeko mugimendua sortu
genuenean mezu argia bidali
genuen: eskubideak
defendatzeko mobilizazioak
egitea eskubide bat da"**

Osloko akordioak egin zituztenetik, "bakea" hitza oso erabilia izan da Palestinan, batez ere Israelgo Gobernuak esaten duenean bakea lortu nahi duela. Aldi berean, ordea, kolonizazio politikak erabiltzen ditu estatu horrek. Beldurrik ematen al dizu hitzak bere benetako esanahia galtzeak?

Bakeaz ari garenean, bake justu bati buruz hitz egiten dugu. Zapalduak dauden herriek, Palestina kasu, aukera dute autodeterminazioaren alde biolentziarik gabe egiteko, nahiz eta bakea den garrantzitsuena. Biolentziarik gabeko mugimenduak pizteko konbentzimenduarekin hurbildu naiz Palestinako herrietara. Izan ere, ekintzaile bakezalea izateko, ekintzak egin behar dira, ezin gara ezer egin gabe gelditu. Harresiaren kontrako manifestazio batean plastikozko bala batekin zauritu ninduten eta azpimarratzekoa da harresia nazioarteko legediaren aurkakoa dela. Nire ustez, mundu guztia mobilizatu beharko litzateke etxeak eraistearen eta Gazako blokeoaren kontra. Adibidez, pasa den ekainean, beste 21 ekintzailerekin batera, *Free Gaza* itsasontzian sartu eta eremu horretara janaria eta osasuna zaintzeko materiala eramaten saiatu ginen. Israelgo armadak, baina, indarra erabiliz bahitu gintuen eta gero, handik joatera behartu. Bakea zerbait aktiboa da, sortzailea. Eta gainera funtzionatzen du; bakeak aukerak sortzen ditu indarkeria ez delako funtzionatzeko modua eta egiteko modu horrek emaitzak ematen dituela erakutsi behar dugu. Hegoafrikan gertatu zen, baita Ipar Irlandan ere. Palestinan, baliteke funtzionatzea. Hango buruzagi askorekin hitz egin dut eta baieztatu didate bertako gizarteak biolentziarik gabeko bideen alde egiten duela apustu. Bide horretan, gure sostengua eman behar diegu.

Palestinarrak zer jaso dezakete Ipar Irlandan gertatutakotik?

Ezberdintasun asko daude, baina gure ekarpenik onena biolentziarik gabeko ekimenetiko itxaropena da. Norabide horretan, helburuak erdietsi daitezke, eta justizia eta bakea eskuratu. Ipar Irlandan gerra zibila bizi genuen 1976az geroztik. Jendea mobilizatu zegoen, antolatuta. Eta guk biolentziarik



gabeko aukera abiatzea erabaki genuen. Paramilitarren indarkeria salatu eta aski zela esan genuen. Hortik aurrera, gizartearen alde mobilizatzen saiatu ginen. Buruzagien artean, bazterketarik gabeko eta baldintzarik gabeko elkarrizketa exijitu genuen. Palestinan ere, nazioarteko komunitateak bazterketarik eta baldintzarik gabeko elkarrizketa eskatu diezaioke Israelgo Gobernuari, prozesu hori serio hartzeko. Alegia, bakearen aldeko prozesuari ekitera behartu beharko luke nazioarteko komunitateak Israelgo Gobernuari. Israelek, izan ere, bakearen alde dagoela esaten du, baina zaila da hitz horiek sinestea harresia eraikitzen jarraitzen duten bitartean. Edo etxeak botatzen ari badira, palestinarren egoera apartheid bilakatzen jarraitzen badute. Politika genoziada horren erruz, palestinarrak garbiketa etnikoa ari dira sufritzen.

Nazioarteko araudiak erresistentzia armatuaren eskubidea ere onartzen du.



"Obamak esan dio gizarteari militarrek arazoak konpontzeko baliogarriak direla, baina nire ustez militarrek arazoa dira, ez dute ezer konpontzen"

Erabiltzen diren tresnek helburuak justifikatu behar dituzte. Giza eskubideetan, nazioarteko legeetan eta bizitzaren errespetuan oinarritutako gizartea eraiki nahi baduzu, gizarte osasuntsu eta demokratikoa lortu nahi baduzu, ezin duzu biolentzia erabiliz hasi. Ez da bide zuzena. Bakea beste biderik

"Israelek dio bakearen alde dagoela, baina zaila da hitz horiek sinestea harresia eraikitzen, etxeak botatzen, palestinarren egoera apartheid bilakatzen jarraitu bitartean"

ez dago. Nik, bonba bat erabiltzeko prest dagoen jendeari, atzera egitea eskatuko nioke. Beren sufrimenduan eta minean pentsatu behar dute eta momentu horretan justizia pixka bat ikusiko dute. Haien bake propioa aurkitzen duten heinean, biolentziarik gabeko bideak hautatzeko prest izanen dira. Nik 1976an ahizparen hiru seme-alabak galdu nituen, hil egin zituzten Britainia Handiko armadaren eta IRAren arteko enfrentamendu batean. Ahizpak, gainera, bere buruaz beste egin zuen ezin zuelako barruko min hori sendatu. Biolentziak gisa horretako historiak ekartzen ditu, pertsonen bizitzak suntsitzen ditu. Eta horixe da palestinarren sufrimenduak dakarrena, israeldarren sufrimenduak dakarrena. Ez dena egin behar da min horretan parte hartu; zergatiak bilatu behar ditugu, ezin gara arazoen zati bilakatu.

1976an irabazi zenuen Bakearen Nobel Saria. 22 urte beranduago, Ostiral Santuko akordioak sinatu ziren Ipar Irlandan, prozesu demokratikoa irekiz. Nola ikusten duzu Irlandako gatazkaren egoera une honetan?

Etorkizuna itxaropentsu ikusten dut. Dagoneko gobernu bat daukagu eta proposatu diren aldaketetatik asko martxan daude. Gaur egun, gizartea ez da bizi amesgaizto baten barruan, ez dute egunero pentsatzen beren seme-alabak erailak izan daitezkeela militarren edo paramilitarren esku. Hori iraganean gelditu da. Benetako demokraziarekin eta adiskidetasunarekin bizitzea dagoki-

DONOSTIA: Hernani, 13
BILBO - GASTEIZ
 Zuluaga Bitxitegiak: Galdakao eta Zornotza
www.eguzkilorejoya.com

EGUZKILORE®
 Zuluaga

gu orain. Gure gizartearen integrazioan sinesten dut; besteez fidatu behar dugu, bestearekin lan egin. Behin bakea lortuta, beste hamaika gauza eskuratu daitezke. Oinarritzat bakea hartzen baduzu, aurrerapenak izanen dituzu ekonomian eta giza eskubideetan. Horregatik nago itxaropentsu, eta bakea lortzea posible dela esan nahi diet beste herrialdeei. Horixe da Ekialde Hurbilera bidali behar dugun mezua: bakea posible dela.

Ipar Irlandarekin lotura izan duen beste gatazka bat Euskal Herrikoa da.

Adibide gisa Ipar Irlandako gatazka nola konpondu genuen hartzen baduzu, arazo etniko-politiko bat ikus daiteke. Onartu beharra dago ETA bezalako taldeak ezin direla baztertu, beraien arazoak zeintzuk diren entzun behar baita, beraien ideiak zeintzuk diren jakin behar da. Hortik abiatuta, elkarrizketa politikorantz abiatu behar dira. Konponbidearen parte izan behar dira, arazoaren parte direlako. Giza eskubideak sustatzeko ezin dituzte larrialdietan sortutako legeak erabili. Ekimen mota batzuek beldurra, haserrea eta zatiketa sortzeko baino ez dute balio, gatazka konpontzeko tresna izan beharrean. Hori da nire esperientzia Irlandan gertatutakoa ikusita. Honakoa da bide bakarra: biolentziarik gabeko eta bazterketarik gabeko elkarrizketa.

Hala ere, une honetan legez kanpo dago ezker abertzalea. Halakorik ez zen inoiz gertatu Irlandan.

Irlandako adibidetik kontuan hartu behar duguna da arazo etniko-politiko sakonen azala dela indarkeria. Hots, sustraietara joatea beharrezkoa dela, benetako arazoa ulertzeko. Jendearekin hitz egitea ezinbestekoa da, hori baita bidea gizartean biolentzia ez beste alternatibak aurkezteko. Ipar Irlandan

"Konponbidearen parte izan behar du ETak, arazoaren parte delako"

erakutsi genuen talde bakezale bat alderdi politiko guztiekin bildu daitekeela. Baita paramilitarrekin ere. Isolamendua apurtzeko pausoak eman genituen, pixkanaka, euren arazoak entzun ahal izateko eta konponbidea bilatzen saiatzeko. Ezin dituzu horrelako taldeak baztertu. Eta ezin duzu haien kontra egin larrialdi egoeretan sortutako legeak erabiliz. Larrialdiagatik izan da hain suntsitzailerak terrorismoaren aurkako kanpaina mundu osoan. Negoziazioaren orde, saiatu dira pertsona batzuk isolatzen eta hain justu, pertsona horiek dira elkarrizketetara hurbildu beharrekoak.

Bakearen Nobel Saria jaso duen pertsona izanik, nola ikusten duzu AEBetako presidentea izatea azken sariduna?

Itxaropentsu sentitu nintzen Barack Obama presidente hautatu zutenean, aldetaren aldeko plataforman zegoelako. Jende pila bat zegoen munduan gerrarekin eta indarkeriarekin bukatzeko asmoan sinesten zuena. Gizartearen segurtasuna bermatzeko, bide militarrek erabiltzen ez dituzten agintariak behar ditugu. Hezkuntza, Osasuna... dira jendeak nahi duena. Horregatik, itxaropentsu sentitu nintzen Obamak aldetaren aldeko hitzak agindu zituen. Izan ere, Alfred

Nobelek Bakearen Saria sortu zuen aintzat hartzeko desarmearen aldeko pertsonak; alegia, talde armatuak disolbatzen dituzten pertsonak, bake elkarrizketak bultzatzen dituztenak, arazoak indarkeriarik gabe konpontzen ahal direla ikasi dutenak. Hori da Bakearen Nobel Sariaren espiritua... Eta garaia baino lehen eman zioten Obamari saria. Momentuz, ez du ezer egin. Hala ere, ardura izan behar du, gogoratu behar du aldetaren aldeko plataformaren burua izan bada, jendeak aldaketa nahi duelako izan dela. Aukera begien aurrean dauka, baina aprobetxatu orde, Afganistanera tropa gehiago bidali ditu. Militarrek arazoak konpontzeko baliogarriak direla esan dio gizarteari, bide horren aldeko ilusioa mantendu du. Baina nire ustez, militarrek arazoa dira, ez dute ezer konpontzen. Dena den, etorkizunik onena opa diot, jendeak aldetan sinesten jarraitzen du eta aldaketa exijitzen jarraitzen du AEBetan eta mundu osoan. Aldaketa kultural baten aurrean gaude, hor daude justiziaren aldeko mugimendua eta bakearen aldeko manifestazioak. Oraindik ere, benetako aldaketa ailegatu daiteke.

Pertsona baikorra zara.

Bai, noski. Jendearengan sinesten dudalako. ■



– Asko gustatzen omen zaizu bi-daiatzeta.

– Bai. Iaz Argentinan izan nintzen eta txundituta gelditu nintzen hondartza batean baleak ikustean eta entzutean.

– Animalia horien neurrigabetasuna sentituko zenuen.

– Animaliazalea naiz. Beste une goangarria izan zen elefante batek tronpa ukitu zidanean eta zurru-
patzen hasi zenean.

– Non, Afrikan?

IBARGUTXI eta OÑEDERRA in DIARIO VASCO:
HURRENGO EBANTZUNA EZ GARA ARGITARATZEREA AUSARTU.



ihiztari handiak dira
begiak.

Ukitzea, ijitoen kondea

ZURRUPATZEAZ, AXULARREK ez du deus aipatzen

Anarkotristura




XI. mende betean gerrak, desberdintasun eta injustizia sozialak ohikoak izaten jarraitzen dute milioika gizakientzat, mundu guztian. Askok pentsatzen zuten zientziaren eta teknologiaren aurrerabideek, azken hamarkadetan eman diren aurrerakuntza benetan zirraragarriek, pobrezia, desberdintasun sozialak eta bortxakeria deuseztatu egingo zituztela, baina bihotz-kentzekoa da gure inguruan begiratu eta XXI. mendea ere XX. mendean gaizki eta oker egin zirenak berriz egiteko bidean dagoela ikustea. Hain zuzen ere, orduan izan zen, XX. mendearen hasieran, aristokratek, lur-jabeek, apaizek eta jauntxoek menpean hartuta zuten Espainia hartan, anarkosindikalismoa sortu zela, era antolatuan. Justizia, berdintasuna, duintasuna, askatasuna, ekologismoa, sexu-askatasuna, bakezaletasuna, naturismoa bezalako idealak, besteak beste, ez dira atzo goizeko kontuak, bazeuden jada kataluniar anarkisten gogo-oinarrian, baita zorigaiztoko gerra zibila baino askoz lehenagotik ere. Hura sindikatu hutsa baino zerbait gehiago izan zen, izan zen gizarte oso ezberdin baten proiektua. Ehun urte ospatzen ditu anarkosindikalismoak, eta, beharbada haren oinarrietako bat baino gehiago, ustez utopikoak zaizkigunak, gure gizartearen egitura sozialaren parte izatera pasatuko dira etorkizun hurbil batean, nork daki. Komunismo libertarioak lortu nahi zuen utopiaren moduko horrek herriaren errebelamenduan eta botere modu ororen aurkako aurrez aurreko oposizioan du bere sustraia. Lan-esplotazioari amaiera ematea zen helburua. Askok, gaur, sinatuko lituzkete anarkosindikalismoaren hainbat printzipio, besteak beste, autonomia, autogestioa, federalismoa, elkartasuna edota elkarrenganako laguntza, auzolana

CONCETA PROBANZA



José Luis Padrón



Rozas



Urkiza

eta, batez ere, ekintza zuzena. Noski, alderdi politikoetatik kanpo, beti ere poliziaren kontrolari aurre egiteko. Aukera ederra, baina ba al dago hemen horrelakorik burutzeko ahalbiderik? “Esperantzarik ez dagoela onartzen baduzu, orduan esperantzaren amaiera bermatzen duzu. Askatasunaren aldeko bizi-sena onartzen baduzu, orduan

daude gauzak aldatzeko aukerak”, Noam Chomsky hizkuntzalariaren gogoetari estu heldu nahi nioke horrelakoetan, baina nik egunero sentitzen dudana Pablo Nerudak esaldi eder honekin laburtu zuena da: “Batuetan gertatzen zait izateak nekatu egiten nauela”. Oteizak bere mingaina lotu ezin eta esan zuen: “Bizitzak ez dit onik egiten batuetan”. Hori gertatzen da nire kasuan ere. Egoera guztiz alaiaren aurrean, eta baita oso tristen aurrean ere, ilun galduta ibiltzen naiz maiz, zeren gau eta egun nire goibeltasunean buru-belarri murgildua egonik ez baitaukat kemenik mundua aldatzeko, kasu horietan ezinbestekoa. Eta gainera,

kontuz ibili behar dut nire burua nire aurka ez jartzeko. Azken “ttakunetan” Ixiarrek argi erakutsi zizkigun argazkietan etengabe nahigabetzen nauen nire oraina nabaritzen dut nik, eta Anak eder aurkeztu zigun osaba Ramonen koherentzian, berriz, etengabe nahigabetzen nauen nire geroa. Horren aurka ez daukat noski ezer egiterik, zeren ilusiorik gabe sentitutakoa

ilusiorik gabe dago sentitua, eta ez du gizartean inongo ondoriorik. Bruce Leek bizitza osoa eman zuen bere burua prestatzen, sekula izan ez zen borrokaldirako. Ez da erraza gizakiaren izatekoa, eta bidegabe handia da izateko horri erraz iriztea. Orduan ekiten diot anarkotristurari, posible den heinean, noski, baina neurri handian posible da. ■



Bruce Leek bizitza osoa eman zuen bere burua prestatzen, sekula izan ez zen borrokaldirako.

Ez da erraza gizakiaren izatekoa, eta bidegabe handia da izateko horri erraz iriztea



Xipri Arbellide

IDAZLEA ETA APAIZA

Sorginak baziren

Baionako Antzokian izan bertso saio ederrarekin bururatu zen sorgin-auzien mendeurrena iragan neguan. Antolatzaileen asmoa zen gezurrez zikindu lapurtar emazteen omena zuritzea. 500 bat erre zituztela entzuten da. Ez dakit norbait ohartzeko den zenbat egur beharko zen 500 jenderen erretzeko: Senpereko oihan guztiak ez ziren aski izanen horretarako. Uste dut Pierre de Lancrek berak hemezortzi hil aipatzen dituen eta nola, heriotza gehiago eta haren ospea handiago izanen baitzen garai haietan, iduritzen zait berak eman datua dela sinesgarriena. Hemezortzi zigor heriotza, ez da guti! Horietan baziren bi apez. Gehienak emazteak, egia da, baina mundu horretan emazteak dira nagusi. Hartu *Horoscope* aldizkaria eta ohartuko zarete, *medium*, *voyante*, *sorcière luciferienne*, *theurgiste*, eta bestetan 10/9 baino gehiago emazteak direla.

Baina ez litezke gure gaurko begiekin ikusi behar duela lau mendeko gertakariak. Garai hartako munduan, denek sinesten zuten sorginetan. Denek sinesten zuten Kanadan ontziak urperatzen bazituen ekaitzak, norbaitek hemen bota zorte gaixtoaren ondorioz zela. Haur ttipi bat hiltzen bazen supituki, norbaiten begi gaixtoa edo begizkoaren ondorioz zela.

Baionako kolegioan sei zuzendari hil ziren bat bestearen ondotik, Etxauz apezpikuak erran zuen: “Norbaitek zorte gaixtoa bota du ikaste-



DANI BLANCO

txearen kontra”. Apezpikuaren sinestea horrelakoa badin bazen, nolaz ez jende xehearena?

Aspaldiko mendeetan sineste hori izan dute lur honetako jende guztiak. Eta gaur egun ere badira, hemen, Euskal Herrian, horretan daudenak. Nihaurk ezagutzen dut, haurra ohakoa eramaki zuen aita. Auzoak haurrari begiratu zion irri polit batekin: “Zer haur pollita!”. Aita loriatua! Haurra gau hartan hil zen supituki. Aitarentzat ez da dudarik: auzoak zion begi gaixtoa bota, bezperan.

Ikusteko molde hori ez da oraino desagertua, eta nehork uste baino hedatuagoa da gure mundu posmodernoan. Duela lau mende, erran daiteke jende guztiena zela.

Sinesten duzularik gaitz guztiak, zenbaitek egiten dituztela, nor diren bilatuko duzu eta ongi gaitzituak izatea nahiko duzu. Hori izan zen de Lancren lana. Politika gizonak baliatu zirela horretaz beste helburu batzuk gogoan, ez da dudarik. Baina de Lancrek ez zuen ezer egiten ahalko sineste hori izan ez balitz hemen.

Boli Koston ikusi dut “de Lancre” bat lan bera egiten, herri guztiak beren zorte gaixtoetarik askatzen, zorte gaixto horiek nork bota zituen erraten. Denek sinesten zuten eta “hobendunek” aitortzen, bate-re torturarik gabe, hemen espikatzea luzeegi litekeen arrazoiengatik.

Beraz bai, “sorginak” baziren Lapurdin bestetan bezala. Horrek ez du justifikatzen de Lancren sadismoa. ■

Bai, ‘sorginak’ baziren

Lapurdin bestetan bezala.

Horrek ez du justifikatzen

de Lancren sadismoa

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Lehiaketa. Torneo Lopez Ufarte Bidasoaldean. Kadeteak, hamalau urte

inguruko mutil oso kozkorrak. Parte-hartzaileen artean Kamerungo selekzioa, larunbatean ikusi nituenak jokoan. Urruñako eta Hendaiaiko Aberri Egunak erditik, astelehenean ikusi nituen berriro finalean, iaz bezala garaile irten zirenak. Biharamunean jakin dut Mallorkatik zetozela beste lehiaketa bat jokotuta. Eta omen, handik bat gutxiagoz etorriak ziren, sobra ere jokalaria bat desagertua. Ez dut inon ere berria entzun ez eta irakurri. Eta nobela bateko gaia bailitzan, Irundik ere, garaitetako batek alde egin

Futbol

omen duen kontua entzun dut, hara eta hona galdezka joan eta baieztatu ezin izan dudana. Inork ez dit eze-

korik esan, baina auskalotze plantekin erantzun didate denek. Ikusi ditudan partidatan, futboletik ezin ogibidea atera eta hala ere pagotxaren baten ondotik itzulimtzulika dabilen hainbat espekulatzailegai topatu dut harmailetan, gustuko jokalarien zenbakia ahotan kaieratzeko prest. Eta nik neure motzean ezin sinetsi nerabe bi horiek, hemengo laguntzarik gabe euren kasa taldetik alde egiteko erabakia hartu dutenik. Futbolari izateko gauza badira, ezagutuko ditugu. Bestela nekez, mahats biltzailtzean harmailarik ez dago. ■

Pili Yoldi

KAZETARIA

Nafar analogikoak

Juan Cruz Alli politikari eta esaera zahar zale amorratuari entzun nion behin: “Ez dago ezer okerragorik jarri ez daitekeena baino”. Esaldia primeran datorkigu Nafarroako euskaldunoi, gelditzeko itxurarik ez duen euskararen ezabaketa ekaitz honen azpian. Orain, telebista ikusteko liskarra: Iruñean euskaraz emititzen duen irrati bakarra itzali nahi digute, lizentzia ez emateko hamaika mila tranpa eginez eta hori gutxi balitz, itzalaldi digitalaren mamuak ETB kendu nahi digu Nafarroako gutxituei. Urte oso bat daramate, *Pello eta Otsa* ipuinean bezala, badatorrela munstroa, badatorrela, hasieran baietz ETB ikusiko, gero agian, eta geroago ezetz. Hurrengoan tresneria arazoa dela, eta bukaera dirua. Tabernetan bezala, ordaintzeko momentuan denak zeruari begira, telebistakoak ezetz, hemengo agintariak ezta pentsatu ere. Honekin guztiarekin hizkuntza normalizatzeko UPNren estrategia argia ez bagenu, orain badakigu zein den: sistema aldaketa aprobetxatuz, digital mundutik euskaldunak kanporatu eta analogikoak nahi gaituzte. *Eusko-fobia* izendatu dezakegun indarrean dagoen erasoaldi berrian, euskara ez da bakarrik gutxiengo baten hizkuntza: beste garai bateko fosila izateaz gain, hiztunak modaz pasatuta gaude, zaharkituak, usteldutako kutsua bagenu bezala. Etengabe entxufatuta egoten den belaunaldi berriari nola



JOSU SANTESTEBAN

interesatu behar zaio digital munduan ez dagoen hau? Gora ingelesa modernoa eta digitala! Eta museotako zaharkin analogiko hori entzun nahi baduzu, ordaindu kodifikatutakoan.

Gure muturrean, esparru publikoetatik kentzen ari dira euskararen arrasto guztiak, baina orain uste ez genuen arloan sartu dira arrapaladan: etxeko egongeletan, santutegi pribatuaren tresnarik preziatuenean, telebistaren erreinuan. Ikusi behar ditugunak! Uhin nahaste-borraste honetan, sekula imajinatutako egoera ez-logiko hauek sortarazten ditu egungo nafar politikak: nik ETBren programazioa ikus-

teko defentsa egiten, futbola eta boxeo izarrak parrilako kuttunak dituen, gurasoei beldurra ematen diguten marrazki bizidunen pantaila; siesta hondatzeko eztabaida ximpleak, eta Tele5ren antzerako eskaletak dituzten informatiboen katea!

Ana-logikoa, bi hitzetan, logikatik kanpo! Argudio bat nire defentsan: familia guztietan bezala, aitortu beharra dut aitona pilotazale amorratua dudala, haurrei *Mihiluze* kristorena gustatzen zaie eta nire koinata *Far west*eko zineman goi mailako aditua bihurtu zaigula Clint Eastwoodi esker. Nonbait digitalizatu gabe gaude etxean. Akaso arrazoia dute, eta ez ote gara gu –Anari abeslariari behin entzun nion bezala– analogiko xamarrek izango. ■

«
Gora ingelesa modernoa eta
digitala! Eta museotako
zaharkin analogiko hori
entzun nahi baduzu,
ordaindu kodifikatutakoan
»

TXANDAN

Edu Zelaieta



Hala bataiatu dio Gasteizko *vox populi*ak Aldundiaren Jauregiaren atzealdean egindako plazatxoari: Kondoien plaza. Izan ere, plaza horretan jarri dituzten argietako bonbilak forma luze eta zurikoak dira; nonbait, kondoiak gisakoak herri iruditeriarentzat.

Halarik ere, plazarekiko oso bestelako asmoa zuen Arabako Foru Aldundiak: Araban frankismoak errepresaliatutako pertsonen oroimena berreskuratzea. Horretarako, monolito batean txertatutako *In memoriam* epigrafearen azpian, errepresaliatu arabarren izen-deiturak ageri dira banan-banan pantailatxo batean. Hortaz, oroi-

Kondoien Plaza

men kolektiboa jaso nahi izateko egitasmoa aitortu behar zaio gure erakundeari.

Ez dakit zuei, baina niri atentzioa ematen dit lan publikoetan kargudun nagusiaren izen-deiturak harrian lantzeko tradizioari oraindik eusteak. Zergatik eta zertarako egiten ote da? Zer nabarmendu nahi da horrela? Egin kontu, irakurle.

Plazaren izenarekin gertatu lege, ordea, gerta liteke herri oroimenak bestelako bide batzuk hartzea. Adibidez, Diputazioan lehen ustelkeriaren susmoak zabaltu zirela, Xabier Agirre jauna Diputatu Nagusi zelarik; Kondoien Plaza egin baino hilabete batzuk lehenago. ■


ZIZTADAK



*Erlamandoen lasterketa,
erlauntzara itzulera eta erlezain burutsua.*

*Egin zaitez 3 jolas hauen bidez
erle esploratzaile prestua.*

>>> 5 urtetik gorakoentzat



Prezioa:

29 €

ARGIAren
harpidedunek:


-%15

Eskaerak:

© 943 371 545

www.argia.com

denda@argia.com



argia
JOLASAK

Krisiari jarriak

I

Nahiz ta amestu ondo izango
ginela bizi guzian
uste gutxien genuenean
sartu gaituzte krisian
atzo artean denok aberats,
gaur denok ezin bizian
harrapatuta gelditu gara
bankuaren lurjauzian.



DANI BLANCO

IV

Diruarekin diru egiten
mozkorturikan bankuak
beti kreditu eskeinka ziren
nahi ziren bezalakuak
oinarririkan gabeko planak
gero emaitzak halakuak
bide hortatik etorri dira
ikuilura behi plakuak.

II

Errepasatzen jarri ezkerro
azkenengo urte hauei
harrokeria punttu bat ere
ez ote zaigu ageri
zero bezala saldu zaiguna
bilakatu da aberi
gezurretako putzu batean
egin baitugu igeri.

V

Orain alferrik aritzea da
egin banu ta bazendu
aska hustuta nola dagoen
behia ezin da gizendu
ari direla diote baina
inork ezin du zuzendu
gizena antzu omen dago ta
plakoari ezin kendu.


III

Etxe, autoa edo oporrak
kontsumismoa zutabe
aurreratutzen saiatu baino
aurrez gastatzea hobe.
Dena kreditu dena hipoteka
ta bankua denen jabe
denok aberats sentitu gara
txanpon bat ikusi gabe.

VI

Nahiz ta ohitura hori ez izan
lehengo aitona zaharrena
behia ahaztuta ibili gara
denok munduan barrena
gero hortatik etorri zaigu
konpon ezin den herrena
behia esnedun izan nahi bada
pentsua eman aurrena.

DOINUA: "Ari naizela ari naizela".



Bidali zure sortak **bertsoak@argia.com** helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

Bunpada Sound

Euskal Herri berriaren taupadak

Beltza eta gorria; hotsak eta soinuak; *beatboxa* eta gaitak; ballenatoa, raia, flamenkoa; eztandak eta taupadak. Horiexek dira, besteak beste, Bunpada Sound taldeak Euskal Herri berria iragartzeko darabiltzan euskarriak eta osagaiak, musikak eta koloreak. *Anitzak Hitzak* du izena taldearen estreinako CDak. Bertan, hamaika musikarik marraztuta aurkituko dugu gure herriaren gaurko aurpegi berri eta koloretsua.

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

Argazkiak: Iñigo Azkona

GAURKO BARAKALDO ez da garai batekoa. Metrotik irten eta minutu gutxiko ibilbidea nahikoa da aldaketak ikusteko. Labe garaie-tako aztarna gutxi aurkituko dugu. Geltokitik hamabost minutura dago San Bizenteko Kultur Etxea. Hala Dzipo taldeak betiko doinuak lantzen dihardu bertan. Pareko gelan, egiten du lan Bunpada Sound taldeak, ohiko soinu horiei kanpotik etorritako musikak nahastuz. Egungo Euskal Herria ezagutzera eman nahi duen proiektu

tua da. Iaz kaleratu zuten lehenengo diskoa, Euskal Herria Anitzak kolektiboak lagunduta: *Anitzak Hitzak*. Rapak, reggaeak, euskal kanta zaharrak eta gure artean diren beste hainbat soinuak –ballenatoa, raia, flamenkoa– osatzen dute taldearen ardatz musikala. Diskoan makina bat istorio eta hizkuntza aurkituko dugu; ia-ia taldekideak beste: hogeitaz dira egitasmoan parte hartu dutenak. Hitzetan antzematen da ugaritasun hori: “Barakaldotarra/





aitaren partez Galiziako familiarekin/ eta ama hizkuntza gaztelera dudala/ beti izan dut argi nire nortasuna...” diote, adibidez, *Anitzak* kantan.

Asko dira, egun, Euskal Herritik kanpo jaiotakoak. Mota askotakoak dira gaurko euskaldunak; ugariak hemen jasotako ekarpen kulturalak. Aldatu da Euskal Herriaren kontzeptua. Euskal Herria Anitzak kolektiboak hori guztia musikaren arloan islatu gura zuen eta egitasmoa hiru lagunen esku laga zuten. Endika “Lahaine” Abella da horietako bat: “Anitzak kolektiboko jendeak musikara eraman nahi zuen taldearen helburua, aniztasunaren berri ematea. Horrela elkartu ginen musikaren hainbat adarretan genbiltzan hiru lagun: David Nanclares, Asier Ercilla eta hirurok”. David Nanclares –programazioak, gitarrak eta ahotsa– eta Asier Ercilla –programazioak eta trikitria– folklorearen mundutik etorriak dira, Fran

Lasuenekin, Kepa Junkerarekin eta Ibon Koteronekin lan egin ohi dute; Endika “Lahaine” berriz, 121 Krew eta Bertsound Rapa taldeetako kide da. Berak eginak dira arestian aipaturiko bertsoak. “Hemen bizi dugun errealitateaz hitz egin nahi genuen. Hori dela-eta, kanpotik etorritakoek eta inguruetako jendeak parte hartzea zen asmoa. Nork bere lanari eusten badio ere, urtebete dauka taldeak eta beste lan bat egiteko nahia badago”. Fran Lasuen eta Ibon Koteronekin batera Angolako Betto Snay rapealaria edo Brendan Oryan irlandarra, daude taldean, besteak beste. Dena den, Bunpada Soundek taldearen oso ikuspegi zabala dauka: “Diskoaren inguruan osatu zen, baina edonork parte har dezake. Ez genion inori gauza bat edo bestea egiteko deitu; ez da Bunpada Soundek daukan politika. Jendea oso era naturalean joan da elkartzen; azken batean, elkar ezagutzen dugu

Ondarre
B A S E R R I A

20214 Segura (Gipuzkoa) • Tel: 943 80 16 54
ondarre@hispavista.com • www.nekatur.net/ondarre



guztioak edo elkarrengandik gertu bizi gara” dio Endika Abellak.

Helburuak partekatzen dituzten lagunak direla esan liteke, Interneten daukaten gunean (www.myspace.com/bunpadasound) jarri dituzten hitzak irakurrita: “Proiektu berri honetan batu egin dira, harresiak etengabe eraikitzen eta suntsitzen diren garai hauetan, aniztasuna ardatz duten musika eta hitzak plazaratu nahi dituzten musikariak”. Are garbiago adierazten dute *Comienzo* abestian: “Bilbotik edo Barbesetik Ravaleko ramblara/ Quitotik zein Quebecetik Dakarreko kaleetara/ proiektuaren berri izan nahi duenari/ parte hartu nahi edo ekintzara pasa nahi duenari/ aniztasunak egin dezakeen on guztia adierazteko bozgorailua gara”.

Musikaria ez ezik, Asier Ercilla arratiarra, soinu teknikaria ere bada. Berak zuzendu zituen grabazio lanak. Endika Abella gustura dago Ercillaren ekarpenarekin: “Disko naturala, freskoa izatea nahi genuen. Garrantzitsua izan zen oso Asierren lana: jendea ezer prestatu gabe agertzea nahi zuen. Ez genien esan gauzak zelan egin, natural sortzea nahi genuen. Oinarri musikalak prestatu genituen, rapean egiten den bezala; eta, behin estudioan egonda, eraikitzeari ekiten zion jendeak. Geu hasten ginen, testuarekin, musikarekin. Aurrerago, grabazioan parte hartu behar zutenei erakusten genien egindakoa, eta bakoitzak sentitzen zuena ekar zezan uzten genuen. Ohiko elementuak sartu zituzten batzuek: hemengo kantak, Kolonbiako sehaska kantak... eta Betto Snayk euskarazko testu bat sartu zuen. Estudioan jolastu nahi genuen, inolako planik segitu gabe. 121 Krewn, nire beste taldean, horrela egin ohi dugu. Freskotasunaren bermea da. Disko hau egitea gure bizipenak handitzeko eta aberaste-ko aukera paregabea izan da”.

Inguruan den guztia dute gai Bunpada Sounden testuek: “Euskal Herriko egoeraz

“Etorri diren askok ez dakite hau Euskal Herria, Espainia ala beste zerbait den. Hau Euskal Herria dela garbi gera dadin balio du gure lanak”

ENDIKA “LAHAINE” ABELLA

hitz egin nahi dugun heinean, nahi dugu etorritakoek ere non dauden jakin dezaten. Maiz, askok ez dute oso garbi non dauden. Ez dakite hau Euskal Herria, Espainia ala beste zerbait den. Hau Euskal Herria dela garbi gera dadin balio du gure lanak”, dio Abellak.

Diskoa egiteko ideiaz gain, Euskal Herria Anitzak kolektiboak beharrezko baliabideak ere jarri zituen: “Taldearen sentsibilitateekin bat egiten dugu. Dena dela, kolektibotik harago, bizitza propioa dauka Bunpada Soundek. Hau da, elkarri ematen diogu laguntza. Kolektiboak hainbat ekimen antolatzen ditu, kolektiboa bera ezagutarazteko edo beraien egitasmoak jendearen artean zabaltzeko. Eta inoiz Bunpada Sounden ikuskizuna izan da ekimen horien amaieran”.

Korrikarako izan ziren Bunpada Sounden lehen hiru jaialdiak. Agerraldi bereziak izanik, ahalik eta partaide eta kolaboratzaile gehien elkartzea nahi zuten. Ez da, baina, ohikoa: “Normalean, ikuskizunean David, Asier eta hirurok egoten gara. Gurekin batera egoten dira Rufoh, *beatboxa* egiten, eta breakdancer bi, Txino eta Malaka. Irudiak ere erabiltzen ditugu, bideoak eta abar. Inoiz, Zumaian jo genuenean legez, tokian tokiko kolaborazioak izan ditugu, hango bertsolariren bat zegoelako. Zerotik hasi ginen eta, poliki-poliki, ezagunak izaten hasiak gara”.

Erritmoz eta mugimenduz beteriko ikuskizuna eskaintzen du taldeak. Eta egiten duten musikaren ezaugarriak erreparatuta, izan zuten buruhausterik taldeari izena jartzera: “Gauza horiek guztiak –musikak, hizkuntzak, jendeak– batuta zelan definitu ez genekien; zaila zen taldearen asmoa izen batean islatzea. Bunpada bururatu zitzaigun. Eztanda bati dagokion irudia, soinu eztanda; izen bizia, kementsua, nahi dugun freskotasuna islatuz”. ■



Urki
TXAKOLINA

Askizu Auzoa, Getaria
Tel.: 943 14 00 49 • www.urkitxakolina.com



Literatura

Mikel Antzak eta Zubietak elkar topatu zutenekoa

Bazebilen zurrumurrua, bageneukan jakin-mina eta badator notizia: apirilaren 22an aurkeztuko du Susak Mikel Antzaren liburu berria, *Ospitalekoak* nobela.

Hiru urtez aritu da donostiarra aurreneko eleberria idazten.

GORKA BEREZIARTUA

GAIAN ni baino jantziago dagoen batek esan beharko du liburu hau kokatzen denentz autofikzioaren esparruan. Gauza bat argi dago: baduela zer edo zer autobiografikotik. Mikel Antza preso dago, Fresnesko espetxean izkiriatu du *Ospitalekoak*. Mikel izeneko euskal preso politikoa da nobelako protagonista eta narratzailea ere. Kartzelako ospitalera eraman dute, puskatutako atzamarra birgaitzeko. Baina ospitalean dena okertuko da, eta gurpildun aulkian bukatuko du; ezinduta idazteaz aparteko zeregin guztietarako. Hori nola gertatu den jakin bitartean, beste istorio batzuk harilkatzen joango dira: arrebaren mutil-laguna hiltzeagatik kartzelan sartu duten Dimitriren; 1936ko Gerran gudari ibilitako Xabierrena; eta, batez ere, Mikelen beraren iragana. Narratzailearen pentsamenduek ematen diete lotura istorio guztiei.

Teknikoki ondo soluzionatutako lana da, egitura zirkularrekoa, zabaltzen dituen hariak behar den momentuan josten dakiena; eta, *topos* nagusia ospitale bat izanda kontrakoa pentsa bazitekeen ere, erritmo azkarrekoa. Horrek harritzen du gehien lehen irakurrian: nobela non kokatuta zegoen jakinda *adagio* bat espero bazitekeen ere, bizia dela *Ospitalekoaken tempo*.

Bigarren irakurketa baterako berriz, ariketa posible bat: nobela hau irakurtzen duenak Raul Zeliken *Lagun armatua* (Txalaparta, 2009) ere leitu badu, nobelak konparazio interesgarri baterako aukera ematen du. Zergatik? Zeliken eleberriko pertsonaietako bat, Zubietak izeneko etakidea, Mikel Antzaren trasuntua delako. Beraz, tarte laburrean, pertsonaia bihurtu-

Tarte laburrean Mikel Antza pertsonaia bihurtuta irakurri dugu Raul Zeliken *Lagun armatua* nobelan; eta orain, autobiografikotik baduen pertsonaia osatu du berak. Biak konparatzea, tentagarria da

ta irakurri dugu idazlea, eta idazleak bere buruarekin zerikusia duen pertsonaia idatzi du. Biak alderatzea tentazio handia da.

Egia: *Lagun armatua*ko Zubietak aske dago, sasian; eta *Ospitalekoake*ko Mikel, kartzelan. Egoerak baldintzatzen du pertsonaien izaera. Baina hala ere, biek badute puntu amankomun bat: literaturarekiko jarrera. Nobela bien-

tan azaltzen da idaztearen eta borrokaren artean hautatu beharra. “Ez al duk antzerki lan gehiago idazten?” galdetzen dio Zeliken nobelako protagonistak Zubietari; eta aurrerago, talentua alferrik galtzen ari dela esaten dio. “Seguru ez zela hainbesteko talentua” erantzuten du Zubietak. Ez da gaiaz gehiago hitz egiten. Ez da horretarako momentua. *Ospitalekoaken* dator arrapostu zabalagoa. “Hala-ko batean jabetu nintzen idatzizko munduak gudan sortzen dituen hunkiduren katea ez dela benetako bizitzakoen oihartzun apal bat baino”. Hau da, “idazteko, bizi behar da” eta “bizitzeko, idatzi behar da” formulazioen artean, lehenengoaren aldeko hautua egiten du narratzaileak. Ipar bera seinalatzen du nobelaren hasierako zita batek: “Oraindik ez zarenean zutitu bizitzeko, alferrikakoa da esertzea idazteko” (Henry David Thoreau).

Gainontzean, antz handirik ez: Zeliken ekintzaile hotza, pertsonaia barnerakoi eta bukaerarako gozo bihurtuta aurkitzen dugu *Ospitalekoaken*.


Urte askoren buruan donostiarrak erakutsi du badakiela oraindik nola kontatu. Zer kontatua ez zaio falta. Hurrengoaren zain gaude. ■



Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Argizari. Hizketan. 2. **Argazkiko herria**. Argonaren sinbolo kimikoa. 3. Erabat, txit. Urlia, Berendia eta... 4. Itsu-itsuan. Ostrukaren antzeko hegazti. 5. Modu atzizkia. Miau eginez. Bi tokiren arteko garraio zerbitzu baten ibilbidea. 6. Lau, ikol. Handizale. 7. Nafarroako udalerria. Ikuspen. 8. Txori mota. Oroitzera behartu.

Goitik behera:

1. Egonlekuak, bizilekuak. 2. Gipuzkoako udalerria. 3. Kirol-lasterketa. Pilotan, tanto ziuerra. 4. Egoki. Jipoitu, xehatu. 5. Arma. 6. Gaia, materiala. Modu atzizkia. 7. "... eginak biharamun ona". Zikin, lohi. 8. Fakultateetan, buru. 9. Narrasti izena. 10. Erregela, norma. Du, niri. 11. Gai likatsua. 12. Seinale, marka. 13. Kaia. 14. Hegal, izkina. 15. Ene! Oi!

Sudokuak

Erraza

	6		3	4			5	8
		3	7	2	8			4
			6			7	3	
6		9		8		5	4	
4	1			3			8	6
	7	8		6		3		2
	2	5			6			
7			2	5	1	8		
8	9			7	3		2	

Zaila

6	4						2	
	9				1	7		3
				5	4			6
	5	1			7			
			9			4	3	
8			5	2				
4		5	7				6	
	3						5	8

Soluzioak

Erraza

8	6	1	4	7	3	5	2	9
7	4	6	2	5	1	8	9	3
3	2	5	8	9	6	4	7	1
5	7	8	9	6	4	3	1	2
4	1	2	5	3	7	6	8	9
6	3	9	1	8	2	5	4	7
2	8	4	6	1	5	7	3	9
9	5	3	7	2	8	1	6	4
1	6	7	3	4	9	2	5	8

Zaila

2	3	7	1	4	6	9	5	8
4	1	5	7	9	8	3	5	6
8	6	9	5	2	3	1	7	4
7	8	6	9	1	2	4	3	5
9	2	4	8	3	5	6	1	7
3	5	1	4	6	7	2	8	9
1	7	3	2	5	4	8	9	6
5	9	2	6	8	1	7	4	3
6	4	8	3	7	9	5	2	1

Ezker-eskuin: 1. Ezko. Etxea. 2. Gernika. Ar. 3. Oso. Sandia. 4. Itsuki. Ema. 5. To. Mianka. Linea. 6. Zapal. Handikari. 7. Iuren. Ikuste. 8. Kuka. Orotarazi. Goitik behera: 1. Egoitzak. 2. Zestoa. 3. Kros. Pik. 4. On. Umatu. 5. Iskila. 6. Etxea. Ro. 7. Lan. Uher. 8. Dekano. 9. Kaman. 10. Arzu. Dik. 11. Ilika. 12. Ikur. 13. Nasa. 14. Ertz. 15. Aite.

Abokatuaren bulegoan

– Egun on! Plaza eta Gomez abokatuen bulegoa –esan du ahots gazte batek.

– Gomez jaunarekin hitz egin nahi dut –galdetu du, zakar, ahots heldu batek.

– Sentitzen dut, baina Gomez jauna joan den hilabetean hil zen.

Hori entzun eta deia egin duen pertsonak, hitzik esan gabe, elkarrizketa moztu du bat-batean. Handik hamar bat minutura, aldiz, beste telefono dei bat, eta aurreko ahots beraren galdera bera:

– Gomez jaunarekin hitz egin nahi dut.

– Barkatu, ez dakit lehen ondo ulertu didazun, baina esan dizut Gomez jauna hila dela.

Eta deitzaileak hitzik esan gabe, atzera, telefonoa zintzilika-tu egin du. Hirugarren aldiz deitu eta orduan, harreragileak:

– Ez al didazu ulertzen edo? Gomez jauna hila da!

– Bai, bai... Ederki asko ulertu dizut... Baina halako poza ematen dit albiste hori entzuteak!

Liburuak

KRITIKA

Niri ez zaizkit liburuak gustatzen!

Testua: Joan Portell Rifé. Irudiak: Oriol Hernández. Erein.

63 orrialde. 6,90 euro.

Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle



Hezteko liburuak

GUSTAVO PUERTA kritikariak Gasteizen emaniko hitzaldi batean gaur egungo haur literatura kritikatu zuen nahiko gogor. Irakaste-ko liburuak, liburu errealistak eta heztekoak argitaratzen direla zioen. Eta nire poltsan Joan Portellen liburu hau nuen; Portell ezaguna dut bera ere kritikaria delako eta katalanez argitaratzen den *Faristol* aldizkariako zuzendaria.

Erran nahi baita... bihotza erdibiturik ekin niola liburua irakurtzeari, ustez egilearekiko sinpatia eta konfiantza, baina bestalde liburuaren izenburuari usain txarra zerion.

Niri ez zaizkit liburuak gustatzen! honek badu aurretik argitaraturiko beste batzuen antza –gure artean Pello Añorgak idatzi zuen antzeko bat–, eta irakurleak badaki idazle batek liburu bat idatzi baldin badu ez dela izango liburuen kontra aritzeko; hots, juxtu kontrakoa bilatu nahi duela eta horretarako irakurlearen konplizitate bilatzen duela idazleak nahi duen lekura eramateko, irakurzaletasunaren aldeko jarrera batera.

Portellek muturreko egoera du abiapuntu: Joan Letra Zauri gazteari liburuak besterik ez dizkiote oparitzen, amak liburuak, aita liburuak, aitona-amonek ere –liburu saltzaileak izanik– liburuak oparitzen dizkiote eta Joan kokoteraino dago. Horregatik erabakitzen du liburutik ez irakurtzea.

Lagunekin futbolekin ibiltzen da, gustura, baina halako egun batean beheko auzokoak ume txikia uzten dio “bost minutuz” bere ardurapean. Umearen negarren aurrean liburuetako ipuinak izango dira Joanen salbazioa. Eta liburuetatik jasotzen du Joanek behar duen laguntza eskola etorri berria duen neska batengana hurbiltzeko ere.

Idazkera zaindua eta estilo arina dituen liburua berehala irakurtzen da, agian dituen zailtasun handienak hizkiak koloretako irudietan agertzeagatik ditu. Alegia, maketazioagatik, irudiaren eta testuaren irakurketa ez dela ondo egiten zenbaitetan. Baina liburua arin irakurri arren, idazleak liburuen aldeko ideia orijinalak eta sinesgarriak azaldu arren, arestian aipaturiko didaktismoa, edo hezteko asmoa oso nabarmena da, pisu gehiegi du eta ez du erakargarri bilakatzen istorioa.

Alde horretatik onartu behar dut Gustavo Puertak arrazoia zuela hitzaldi hartan. Haurrentzat egiten diren liburuetan ematen du horrelako presa dagoela, axolagabekeria; ez zaiela behar duten arreta jartzen (kasu honetan, nire ustez, irudietan eta hauen maketazioan bada horrelako zerbait; eta antzeko zerbait esan genezake itzulpenei buruz, gero eta gehiagotan ikusten baitugu –honelako liburuetan bakarrik– itzultzaile enpresa bat, eta ez pertsona bat). ■

Thorearen ‘Desobedientzia zibila’

Edu Lartzunguren itzuli eta Potxo Edizio-akek argitaratu du lehen aldiz euskaraz Henry D. Thorearen *Desobedientzia zibila* liburua. AEBetako idazlearen liburu ezagunenetarikoa da, *Walden*ekin batera. Markos Zapian filosofoak egin dio hitzaurrea, eta bertan Thorearen bizitza erreparatzeaz gain, haren pentsamenduaren gakoak azaltzen ditu. Zapiainek, Michel Onfrayren esanetan

oinarrituta, libertario-tzat jotzen du idazlea, askatasun indibiduala mugatzea onartzen ez zuen neurrian. Alabaina, Onfray baliatuz oster, Thoreau ez zen anarkista. Etika jartzen zuen aurrena Massachusettsetako: “Zuzentzat duzuna egizu; ez duzuna, aldiz, legala izan arren, ez egin”. Printzipio horietan sakontzen du liburuak. ■



Desobedientzia zibila.

Henry D. Thoreau.
Potxo Edizioak.
77 orrialde.
10 euro.

Hamahiru poeta, Odriozolaren irudietan

Elkar argitaletxearen eskutik ikusi du argia *Txori kantariak poeta hegalaria* liburuak. Hamahiru poetaren idatziak bildu dituzte argitalpenaren orrietan: Pello Añorga, Luto Egia, Juan Kruz Igerabide, Joan Mari Irigoien, Felipe Juaristi, Antton Kazabon, Miren Agur Meabe, Karlos Linazasoro, Joxan Ormazabal, Jon Suarez eta Kirmen Uribe dira poetak. Hamalagarrena falta da ordea, Elena Odriozola ilustratzailea, alegia: “Poesia hauek guztiak ilustratu beharrean, nik ere poesia bat egitea erabaki dut. Marrazkiekin, hitzekin, objektuekin...” dio

Odriozolak liburuaren bukaeran. ■



Txori kantariak poeta hegalaria.

Batzuen artean.
Elkar.
8 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



War would be disastrous.
Disflesh/Slugfeast.
Hecatombe Records.
Iraupena: 50'14".
10 euro.

Eskola zaharreko hardcore-crust amorratua

URTE ASKO pasa dira Iñako Iglesias arrasa-tearra musikan hasi zenetik. Child Abuse, Mad Shadows, Ominous, Gothic Sex, La Txusma, Daemonlord eta Destino/Encierro dira haren taldeetako batzuk. Almeriako erbestean, baina, doinu ilunak alboratu eta hastapenetako hardcore-crusta berreskuratu zuen, Disflesh izenpean. Numen eta Darkness By Oath taldeetako Aritzen laguntzarekin, diskoak kaleratzen dihardu. Honako hau, Slugfeast-ekin erdibana.

Hamaika kantak eskola zaharreko hardcore amorratuaren eta grindcorearen artean kokatzen dira, 80ko hamarkadako Europako crustean. Eta aukeratutako bertsioak ere norabide berean doaz: Discharge, Amebix eta Upright Citizens. Hala ere, azken horrek, Alemaniako punk-hardcorea aintzat hartzen duela. Iraganeko ildo sinesgarri hura berreskuratzeko ahalegin txalogarria.

www.disflesh.com

Iñako Iglesias - Disflesh

«Euskal Herrian faltan botatzen ditut musika komertziala edo politikoa egiten ez duten taldeak»

Disflesh taldeak bere egiten du 80ko hamarkadako taldeen crust izpiritua. Zer zeukaten talde haiek?

Hamarkada hura izan zen musika estilo-etan irekiena eta aberatsena. Estiloak garatzen zebiltzan orduan, eta horrek are eta erakargarriagoak, naturalagoak egiten zituen sasoi hartako taldeak. Gure konposizioak, bigarren demotik eta Aritz ahotsetan sartu zenetik, crusta dute oinarri.

Hala ere, harritzen nau zu doinu ilunagoetatik hardcore-crustera bueltatu izanak...

Oso ondo pasa nuen death-metal, grindcore eta black-metala egiten, baina nire hastapenetako musika egiten gehiago gozatzen dut. Zerk batzen ditu Disflesh eta Slugfeast, eta nola sortu da diskoa erdibana egiteko elkarlana?

Slugfeast taldeko Anton lagun handia da eta biok elkarrekin Desti-



no/Encierro izeneko talde bat ere badugu. Oso naturala izan da elkarlana.

Disflesh-en ibilbidean gerra ageri da beti. Zerk arduratzen zaitu?

Gizakiaren ergelkeriak arlo guztietan.

Diskorako aukeratutako bertsioek asko esaten dute taldearen gainean... Eta horren harira, harritu nau Upright Citizens aukeratu izana...

Bai, Amebix, Discharge eta Upright Citizens, hirurak 80ko

hamarkadakoak, oso garrantzitsuak izan ziren niretzat mutikotxo bat nintzeanean. Eta Upright Citizens taldeak oso *feeling* berezia zuen, garaiko taldeetatik bereizten zituena.

"Nazioak jausiko direnean". Horiek dira guztiaren erudunak?

Gizakiaren harrokeria, agintariak eta herri xehearen jarrera bildotsa.

Almeriako desertuan posible da gizakia

neurri batean ahaztea?

Beste bizitza mota bat da, bakar-tiagoa eta materialismo askoz txikiagokoa.

Zer nolako musika taldeak falta dira zure ustez Euskal Herrian?

Euskal Herriak dauka Europako musika aberastasun handienetako bat, baina nik faltan botatzen ditut musika komertziala egitea helburu ez duten eta mezu politikorik ez duten taldeak. ■

Ezpalak

JON TORNER

Abian da Laburbira zirkuitua



BEDERATZI FILM LABURREK osatzen dute Topaguneak sustatutako Laburbira zirkuituaren eskaintza. Orotara 28 herritan proiektatuko

dituzte lan horiek: Euskal Herriko 26 aretotan eta Paris eta Shangaiko euskal etxeetan, maiatzaren 5era bitartean. Hautatutako bederatzi filmak dira: *Abate pasa*, *Zorion butsa*, *Amona putz!* (argazkian), *Nora zozaz*, *Clark and Boris*, *Odisea etxaldean*, *Nireak dira!*, *Esaioke eta Nerguko hitzak*. Udalerrien zerrenda eta proiektzio egunak www.topagunea.net webgunean kontsulta ditzakezue.

‘Auñamendi’ entziklopedia sareratu du Eusko Ikaskuntzak



EUSKO IKASKUNTZAK Interneten jarri du kontsultagai Auñamendi Eusko Entziklopedia (www.euskomedia.org/aunamendi), “Euskal Herriko tradizio, gaurkotasun eta

geroaren arteko zubi-lana betetzea helburu duen egitasmoa”. Bernardo Estornes Lasaren *Auñamendi* entziklopedia du oinarri, eta dozena bat ataletan –antropologia, zinema, musika, historia, artea...– banatutako milaka dokumentu bildu ditu.

Jon Vallejo eta Monica Zamora dantzariak sari-tuko ditu Dantzari Profesionalek Gipuzkoako Elkar-teak, maiatzaren 1ean Donostiako Antzoki Zaharrean egingo den ekitaldian. Apirilaren 29an ospatuko da Dantzaren Nazioarteko Eguna, eta horren karrieta Dantzaren Hilabetea antolatu dute Gipuzkoako Hiriburuan. Egitaraua maiatzaren 2an Victoria Eugeniean egingo den galak itxiko du. Alicia Amatriain dantzari donostiarrek parte hartuko du emanaldi horretan.

Unhe Trio hirukoteak –Iñigo Peña, Juanan Aizpuru eta Josu Aiarzaguena– estreinako diskoa plazaratu du (Unhe Trio boskoteak bi zeuzkan lehendik). Jazz estiloa jorratu dute bederatzi lan instrumentaletan. Pianoa, bibrafonoa eta tronpeta erabili dituzte diskoa grabatzeko (www.unhetrio.es).

● Jon Kortazar idazle eta literatur kritikariak Berrian:

«Ikasleei eskatzen diet eurek nahi duten liburu bat komentatzeko eskolan, eta gehien aipatzen den adjektiboa irakurterraza da. Baina uste dut irakurle askoz trebatuagoa



duela gaur egun euskal literaturak, lehen berriak ziren teknika literarioak barneratu egin ditugulako, eta orain horiek zailtasunik gabe irakurtzen ditugulako. (...) Ez da ahaztu behar sari hori [Espainiako Sari Nazionala] irabazi duten liburuek lehenengo Euskal Herrian egin dutela bidea. Kirmen Uriberen nobelak bide handia zuen egina hemen aurretik. (...) Ez dut Espainiako Kritikaren Sariko epaimahaian berriro egoteko asmorik».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



AMURRIO

Apirilaren 21etik 25era, Juan Urrutian

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Zinemaren historia guztia, 14 minututan

Fast Film. Zuzendaria: Virgil Widrich.
Austria, 2003. 14 minutu.

VIRGIL WIDRICH ez dela ohiko zuzendaria, edonork igartzen du. Aski da hark egindako sekuentzia bakarra ikustea jabetzeko irudia asko lantzen duela –eta oso modu bitxian–. 2001eko *Copy Shop* laburrarekin ezagutu nuen: gizon batek fotokopia denda batean lan egiten du, eta bere buruaren kopia egiten du nahi gabe. Eta gero beste bat. Eta beste bat. Eta beste bat. Hiri osoa hartzen dute gizonaren kopiek, zuri beltzeko anabasa, behin, eta beste behin, eta beste behin, eta beste behin errepikatzen da. Istorioak badu mamia, eman dezake lan munduaz, errutinaz, etengabeko errepikapenaz gogoeta egiteko. Baina teknikoki gertatzen da harrigarrien: Widrichek bideo digitaletan errodatu zuen, baina irudiari textura berezia eman nahi zionez, material



guztia inprimatu, fotokopiatu, eta 35 milimetroko kamera batekin berriz grabatu zuen. Fotokopia erre baten tankera hartu zuen filmak.

Aurrekoan, sarean saltsan, 2003an egin zuen *Fast Film*ekin jo nuen: berriz ere harri eta belarri geratu nintzen irudiaren tratamenduetarekin. *Copy Shop*eko inperfekzioaren estetika, oraingoan, kolorea hartu du eta hiru dimentsiotan ere funtzionatzen duela erakutsi.

Zinemaren historiari egindako omenaldi gisa uler liteke *Fast Film*. Ordu laurden eskasean, sekuentzia klasikoak hartu, moztu, eta testuinguruz aldatuz, bideo-artetik gertu dagoen lana ondu zuen Widrich. Hollywood erdia ikusiko dugu tren laster ero batean; gero paperezko hegazkinetan; THE END letren jazarpenari aurre egiten... Eta azkenean, musu heze eta erromantikoetan urtzen, pelikula ondo amaitzeko. Erokeria txiki bat, lan asko hartuta egindakoa.

ZIENTZIAZ
GÖZATZEA
DENON
ESKU



Bill Brysonen
best-seller mundiala
lehen aldiz euskaraz
4 milioi ale baino gehiago
saldata mundu osoan.



<http://www.billbryson.org/edizioak>

Zizpiak
argitaletxea

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Chagos irlak, munduko itsas erreserbarik handiena



Diego Garcia uharteko base militarra.

ERRESUMA BATUAREN menpe dau-den Chagos irlak munduko itsas erreserbarik handiena bilakatu dira. 545.000 kilometro koadro ditu uhartediak, eta Indiako Ozeanoan dago, Seychelles-etik mendebaldera eta Maldivas-etik hegoaldera. Bertako ekosistema babesturik egongo da aurrerantzean; batez ere, merkatal arrantza egongo da debekatuta bertan. Orain arteko itsaso-ekosistema babesturik handiena Hawaiiko ipar-mendebaldean zegoen, eta George Bush AEBetako presidente ohiak sortutakoa zen.

Chagoseko 55 irlak oso ezagunak dira koralezko arrezifeengatik eta animalia espezie ugariengatik. 1814. urteaz geroztik Erresuma Batua da beraien jabe; bertako Diego Garcia irla AEBei alokatu zioten, base militarra eraikitzeko. Joan den mendeko 60ko eta 70eko hamarkade-tan, Diego Garcia irlako 2.000 biztanleak kanporatu zituen Erresuma Batuak, base hori eraiki ahal izateko. Orduz geroztik, kanporatutako biztanleak borrokan ari dira hainbat epaitegitan. Une honetan Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren esku dago gatazka.

Txokolatearen onurak

TXOKOLATEAREN onurei buruzko ikerketa ugari egin dira azken urteotan. Oraingoan, Nuthetal Institutuko (Alemania) mediku batzuek eman dute euren ikerketaren berri *European Heart Journal* aldizkarian.

Brian Buijsse ikerlariak zuzendutako ekipoak 35 eta 65 urte bitarteko 20.000 lagunen datuak aztertu ditu. Pertsona horiek, ikerketaren hasieran, ez zuten arazo kardiobaskularrik. Hamar urtez haien presio arteriala, pisua, bizimodua eta elikadura aztertu zituzten. Amaieran, hainbat multzotan banatu zituzten boluntarioak, egunero 1,7 gramo txokolate jaten zutenetik hasi eta 7,5 gramo jaten zutenetara arte.

Emaitzetan, besteak beste, ikusi zuten txokolate asko jaten dutenek bihotzekoa izateko arriskua gainerakoena baino %48 txikiagoa dela. Eta jale horien artean, txokolate beltza jaten dutenen arriskua besteena baino %27 txikiagoa da. On dagizula, bada.



Lurraren berokuntzak nola eragiten dion gure osasunari

Osasunaren Mundu Era-kundearen azken buletinak azpimarratu du gizakiaren osasunean gero eta eragin handiagoa duela berotegi efektuak. Esandakoaren adibide zerrenda gero eta zabalagoa da.

<http://ttiki.com/12077> (Frantsesez)

Oilaskoek guk baino kolore gehiago ikusten dute

AEBetako Saint Louis hirian dagoen Washingtingo Unibertsitateko Medikuntza Eskolako ikerlari talde batek, oilaskoaren begia zehatz-mehatz aztertu ondoren, artelan baten aurrean gaudela adierazi du.

<http://ttiki.com/12078> (Gaztelaniaz)

Alkoholaren aurkako publizitatea haren aldeko bihur daiteke

Indianako Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde baten arabera, hainbat administrazioi alkoholaren gehiegizko kontsumoaren aurka egindako kanpainetan erabilitako arrazoiek, hala nola hainbat arazoren aurrean lotsa edo errua sentitzeak, aurkako efektua izan dezakete pertsona batzuegan.

<http://ttiki.com/12079> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Hariari brintz

Busti-lehorrerako egokienak diren egurrak gaztaina (*Castanea sativa*) eta sasi-akazia (*Robinia pseudoacacia*) dira. Material hauekin egiten dira itxituretarako baldo, hesola, taket, zurkaitz, zutoin, zutiko, tantai, pazota... gehienak. Gaur egun zinta-zerran, zerra zirkularrean edo motozerrarekin egiten badira ere, era zaharrera, borrarekin burdin-ziria jo eta sartu eta enborra printzatuta, bringatuta, arrailduta, baldoak egurraren harian egiten duenik ere bada oraindik. Harian egindako hesola okerragoa izango da, eskurako eskardatsuagoa eta zakarragoa, garraiorako eta lurrean sartzeko baldarragoa, baina alde ederreko iraupena izango du, hariak oso-oso-koak izango baititu, goiko burutik hasi eta beheko muturrerainokoak.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Maiatzak 5, 1808, Baiona

ESPAINIAKO Maria Ana erregin mainontziak, duela hirurehun bat urte alargundu eta haizea hartzera bidali zutenean, Marracqeko gaztelua eraiki zuen erbestean, Baionan. Egun izen bereko auzoan dago, hiriko monumentua izendatua izanagatik harri pila bat besterik ez dena. Harri arte horretan bertan Napoleonen hankapean, 1808an, maiatzaren 5ean, Espainiako Borboien leinuak, Maria Luisa eta Karlos IV.a erregin-erregeak eta haien seme Fernando VII.ak, erregetzarako eskubideei uko egin zion, jubilazio oparo baten truke herria merke asko salduz. Sinadura haien erramu, Euskal Herriak makina bat desgrazia pairatu zuen, eta ipar eta hegoko auzokoen sestra artean, gure garai negargarrienetako baten atarian sartu ginen. Historia utzi eta loreetara, ganorazko gaietara goaztean! Euskal Herria oraindik ere penatzen duen sestra horixe landareetan ere bizirik da.

Baionako harri arte hartan herria saldu zuen Maria Luisa haren omenez da *Aloisya citrodora* luisa-belarra. Luisa beretik dator *Aloisya*. Espainiako jakintsu-espeditzio batean zirrikituren batetik sartuta, Joseph Dombey naturalista frantsesak 1780 alde-ra Hego Amerikako landarediaren gaineko berri mardulak igorri zituen, kininari buruzkoak eta oraino *Jardin des Plantes* Parisko botanikoan dagoen herbario edo landare bilduma entzutetsua tartean... Hari zor zaio luisa-belarraren ezagutza Europan. Egun, botanikari frantximantatu ugari *Dombeya* izena jarriko lioke landare genero horri.

Italian jaioetako Espainiako erreginaren ohorezko *Aloisya* baino lehen luisa-belarrari *Lippia citrodora* deitzen zitzaion. XVII. mendeko naturalista frantses Augustin Lippiren omenezko izena.

Landare askori egiten zaiona egin zaio luisa-belarrari: Lippiri kendu, Dombeyri eman ez eta *Aloisya* jarri. Horra sestra. Espainia eta Frantzia. Eta Baiona erdian...



Diseinua · Sorkuntza · Mantenua

Ortiz Eiguren Txopitea

Lehenbizikoa (BIZKAIA) - www.kostelatan.com

Tel: 94 884 27 78 - 605 77 01 88

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

X. mendeko Lady Di

CHRIS 73

WWW.HERITAGE-KEY.COM



WESSEX (INGALATERRA), 910. Eadgyth (edo Edith) printzesa, Ingalaterrako Eduardo I.a Zaharra erregearen eta Ealhswith erreginaren alaba, jaio zen.

Hemeretzi urte zituela, bere anaia Athelstan erregeak egungo Alemaniara bidali zuen, Algi-va ahizparekin batera. Athelstanen asmoa bi erresuma saxoien arteko aliantza bultzatzea zen, eta bere bi arrebak Saxoniako dukeari bidali zizkion, hark bietako bat aukera zezan. Dukeak, geroago Otto I.a Erromatar-Germaniar Inperio Sainduko enperadorea izango zenak, Eadgyth aukeratu zuen eta urte horretan bertan, 929an, ezkondu ziren.

Hurrengo urtean Liudolf semea jaio zen, Suabiako dukea izango zena, eta urte batzuk geroago Liutgarde alaba. Eadgyth enperatriza 946. urteko urtarrilaren 26an hil zen, 35 urte zituela.



Ezkerrean, Otto I.a eta Eadgyth errege-erreginen eskultura, Magdeburgoko katedralean. Eskuinean, erreginaren sarkofagoa.

2008an, Magdeburgoko (Alemania) katedralean lanean ari zen arkeologo taldeak harrizko sarkofago bat aurkitu eta ireki zuen. Barruan berunezko hilkutxa zegoen, eta horren barruan gorpu baten arrastoak, zetatant bildua. Berunezko kutxaren idazkunaren arabera, gorpua Eadgythena zen, 1510. urtean berriro hilobiratua. 2009an hainbat azterketa egin zituzten Magdeburgon bertan, eta aurten arrastoak Bristolera (Ingalaterra) eraman dituzte gorpua erreginarena zela baieztatu duten testak egiteko asmoz: isotopoen bidez, hortzak Wessex inguruan jaioetako pertsona batenak ziren ala ez ondorioztatu ahal izango dute.

Arrastoak aztertzen ari diren nazioarteko lantaldearen buru eta Bristoleko Unibertsitateko irakasle Mark Horton-en esanetan, emaitzak baieztatuz gero “Ingalaterrako errege-familiako kide baten gorpu osoaren arrasto zaharrenak genituzke”.

Hortonen aburuz, azterritik etorritako erregina oso ezaguna eta maitatua izan zen inperioan, bere eskuzabaltasunari eta karitate obrei esker. “Emakume ederra zen, dohainez betea, duela mila urteko Galesko Diana baten modukoa”.

Arrastoak

Jurasikoaren koloreak

ANCHIORNIS HUXLEYI hegaztien eta dinosauroen arteko animalia espezieak –izenak “ia hegaztia” esan nahi du– zer kolore zituen ondorioztatu berri dute Pekineko (Txina) Historia Naturaleko Museoko kideek. Berriki aurkitutako eskeletoaren melanosomak –melanina pigmentua gordetzen

dutenak– aztertu, egungo hegaztien lumetako melanosomekin alderatu, eta espeziearen kromatis-moa berregin dute: enborra gris iluna edo beltza zuen; hegoetan luma luze zuria, marra beltzekin; burua pikartatua eta isats marroi luzea, eskuineko marrazkian agerit den moduan.



WWW.UTEXAS.EDU

Eskola 2.0 plana eta WiFia

Mikro-uhinak eskoletan: aurrerapena eta zalantzak

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak Eskola 2.0 plana diseinatu du ikastetxeentzat. Ikasgeletan mikro-uhin bidezko WiFi sistema ezartzeak hautsak arrotu ditu baina. Celaá-ren sailaren arabera sistema ez da kaltegarria osasunarentzat; baina hainbat gizarte talde, sindikatu eta ikastetxek WiFia ordez kablea jartzeko eskatu dute, zalantzak argitu bitartean.

URKO APAOLAZA

IKASGELETAN 18.000 ordenagailu ultraeramangarri banatzea aurreikus-ten du Patxi Lopezen Gobernuak martxan jarri duen Eskola 2.0 Plana. Horrez gain, ikasgela bakoitza arbela digitalaz, WiFi konexioaz, armairu elektrifikatuaz eta multimedia materialez baliatu ahal izango da. Plana 2009an onartu zen, Espainiako Gobernuak *Escuela 2.0* programaren baitan, eta jadanik hasi dira ordenagailuak Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleen artean banatzen. Planaren asmoa da “ikasgela

digitalak” sortzea eta modu horretan oinarriak jartzea “etorkizuna konkistatzeko ondo posizionaturik egote-ko”, lehendakariak aurkezpenean azaldu zuenez.

Baina planaren diseinuak eta aplikazioak hainbat kritika izan ditu, hezkuntza sektoretik bezala gizarte arlo-rik. WiFi (*Wireless Fidelity*) sistema ezartzea izan da polemika handien piztu duen gaia. Hainbat talde, erakunde eta sindikatuk eskatu dute sistema horren ordez kablea edo zuntz optikoa jartzeko ikasgeletan. Izan

ere, haien esanetan, WiFi teknologia osasunarentzat kaltegarria izan liteke hainbat ikerketek diotenari kasu egi-nez gero, eta zalantzak egon bitar-tean ez litzateke erabili behar.

2007an WiFiak erabiltzen dituen mikro-uhinen inguruko *BioInitiative* txostena aurkeztu zuten Europar Parlamentuan. Txosten horretan 1.500 ikerketa baino gehiagoren emaitzak jaso dira, tartean Europako Ingurumen Agentziarenak, eta ondo-rioa da mikro uhinek eragin biologi-koak izan ditzaketela pertsonengan

ARGAZKI PRESS / JON URBE





Isabel Celaá Hekuntza sailburua Eskola 2.0 planaren aurkezpenean.

Wimax Iparraldean

Kontseilu Nagusia Wimax sistema ezartzen ari da ADSL sarea iristen ez den itzalguneetara. Ipar Euskal Herriko zenbait herritan, hala nola Amikuzen, Heletan, Itxasu, Mitikilen... mobilizazioak egin dituzte Wimax-a ez jartzeko eskatuz eta kolektiboa ere sortu da —*arianhari.blogspot.com* du webgunea—. Azaldu dutenez, ADSL sarea ezartzeko inbertsio gehiena Biarnora bideratu da eta Ipar Euskal Herrian Wimaxa jartzeko erabakia instituzionala izan da (6 milioi euro inbertitu ditu Kontseilu Nagusiak sistema jartzeko).

Wimax antenek 50 kilometroko eremua har dezakete eta eragiten duten erradiazio maila unean-unean konektatzen den jendearen arabera igotzen da.

—ADN katea apurtu, estresa sortu, erreazio alergikoak eragin, sistema immunologikoa aldatu...— eta gaur egun Europan arauturik dagoen emisio segurtasun maila ez dela egokia osasunaren babeserako. Hau da, araudia desfasaturik dagoela. Hain zuzen, txosten horrek bultzatuta, Europako Parlamentuak hainbat erresoluzio onartu ditu kutsadura elektromagnetikoaren aurrean neurriak hartzeko gomendatuz Batasuneko Estatu kideei. Zenbait herrialdetan erakunde publikoak jada hasi dira neurriak hartzen: Alemanian, Suitzan, Austrian, Frantzian...

Celaá: "Ez da kaltegarria"

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailarentzat ordea ez dago inolako arrazoi

zoinik larrituta egoteko. Telekomunikazio Ingeniaritza Eskolak frogak egin ditu laborategian eta ikasgeletan, eta ondorioztatu dute erradiazio maila, egoera txarrean ere, egungo normatibak arautzen duena baino 100 aldiz txikiagoa dela: "Horrek demostratzen du erabiltzen den Wi-Fi teknologia ez dela kaltegarria" azaldu du ohar bidez Celaá sailburuak. Hekuntza sailak gainera, gogorarazi du orain arte sistema hori erabili izan dela EAEko hainbat ikastolatan *Ikasys* programaren barruan, eta ez dela inolako arazorik sortu. Horrez gain, Wi-Fiaren arriskurik eza defendatzen dutenek, Munduko Osasun Erakundeak edota Britainia Handiko Osasuna Babesteko Agentziak esandakora jotzen dute, esposizio maila

horietan osasunaren kontrako eraginik ez dagoela azaltzeko.

Aldiz, kontrakoa dio Frantziako Osasunaren Babeserako Agentziak (AFSSET). Erakunde hau saiatu da mikrouhinak ikertzen dituzten 2.000 artikuluko zientifiko modu sistematikoan aztertzen. Horren arabera, eragin biologikoez diharduten artikuluko askotan metodologia zorrotza erabiltzen den arren, soilik gutxi batzuk dira fidagarriak esperimenduak baldintza guztiz egokietan egin dituztelako, eta fidagarri horietatik badaude batzuk esaten dutenak osasunaren eragina izan dezaketela mikro-uhinek. Horregatik, zalantza horien aurrean, "zuhurtzia" eduki eta ikertzen segitu behar dela ondorioztatu du AFSSET-ek.

AMAGOIA i ETXEKAR

Dendaldegi 7 • URNIETA (Gipuzkoa)

La Bretxa Merkatal Gunea
1. solairua, B 04 lokala (ostirala-larunbata)
DONOSTIA (Gipuzkoa)

www.amagoiaietxekar.com
www.boutiqueaie.com

Tel. 943 336170 • 677 202122

Bitor Goñi

«Europar, WiFia kendu eta kablea jartzea da modernoa»

Euskal Herriko Kutsadura Elektromagnetikoaren Aurkako Plataformako kide da Bitor Goñi (Gasteiz, 1967). Gasteizko Alde Zaharreko auzo elkarteak utzi dien egoitza txikiko telefonoari sua dario egunotan WiFia dela-eta: “Eztabaida ez da berez sortu, guk piztu dugu”.

“Kaixo X naiz XX ikastetxekoa, zuen plataformako kide egin nahi dugula esateko deitzen dizuet”. Erantzungailuak salto egin dio Bitor Goñiri nahigabe, eta mezu hori entzun da bulegoko lau pareten artean. Kazetaria testigu. WiFia-
ren ezarpenak eskoletan sortu duen kezka kalibratzeko balio lezake agian.

Zergatik zaudete WiFiaren kontra?

Hezkuntza sailetik aditu batzuen ikerketara jotzen dute WiFiarekin arriskurik ez dagoela esateko. Baina zein dira aditu horiek? Ingenieritza Eskolakoak? Ingeniariek esan dutena da emisioa legezko neurrien azpitik dagoela, baina haiek ez dira zientifikoak. Zientifikoek kontuz ibiltzeko eskatu dute, ez guztiek jakina, baina horrek eskatzen du “arreta printzipioa” kontuan edukitzea; hare gehiago oso sensibla den biztanleen sektore batekin ari direnean: haurrak eta haurdun dauden irakasleak.

Prebentzio edo “arreta-printzipioa” aipatu duzu. Europako zenbait lekutan hasi dira aplikatzen.

Begira Parisen, eskoletan telefono mugikorra erabiltzea debekatu dute, baina ez jolasean dabilatzalako, printzipio horrengatik baizik. WiFia ipintzea badirudi oso modernoa dela, baina



Bitor Goñi EHKEAPeko kidea,, eskoletan kablea jartzeko eskatzen duen kartelarekin.

Europar, modernoa da WiFia kendu eta kablea jartzea, osasunaren alde egotea, hori bai da modernoa.

Baten batzuk pentsa dezakete “hemen daude betikoak, gauza berri bat atera eta horren kontra jartzen dira”...

Gu konexio librearen alde gaude, teknologia berrien alde eta Eskola 2.0ren alde (WiFia kenduta); baina ez gaude gizarteari kalte egiten dioten sistemen alde. Bakoitzak jakin behar

U.A.

du zer egin bere buruarekin, mugikorrak erabiltzen ditugu, baina inork ez du nahi antenarik bere etxe ondoan... Eta alde horretatik ez dira gauzak gaizki egiten ari, baizik eta oso-oso gaizki.

Mikro-uhinez hitz egiten duten aldeko eta kontrako txostenak kaleratu izan dira. Txosten gerra baten aurrean al gaude? Zientifikoki irabazi beharreko borroka al da?

Tabakoarekin berdina gertatu zen. Hainbat zientifiko tabakoa kaltegarria zela esaten hasi zenean, tabakalerek beste ikerketa batzuk egin zituzten kontrakoa esanez, osasuntsua zela. Azken batean hori diruarekin konpontzen da; eta nork du dirua? Gaur inori ez zaio okurrituko eskola batean erretzea, baina orain hogeit urte nik ikusten nuen nire irakaslea klasean erretzen.

Kanpaina egin duzue eskoletan kablea jartzeko. Zein pauso eman dituzue zehazki?

Prentsaurreko batekin hasi ginen, eta Internet bidez asko mugitu gara, kartelak atera ditugu, hitzaldiak eman... Horrez gain gehiengo sindikalarekin bildu ginen eta haiei esker ere asko zabaldu dugu mezua eskoletan.

Eta zer erantzun jaso duzue? Harremanetan zaudete eskolekin?



etxepare saria
haurrentzako
album ilustratuak sortzeko

Saria: 6.000 euro
Originalak aurkezteko epemuga:
2010eko azaroaren 30ean
Leitzako udaletxean (Nafarroa)
Oinarriak: www.etxeparesaria.net

antolatzaileak:

Barañaino Udala; Baztango Udala; Berriobeitiko Udala; Berriozarko Udala; Bortzirietako Euskara Mankomunitatea; Barlutako Udala; Garesko Udala; Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea; Lizarrako Udala; Maierrekako Mankomunitatea; Sakanako Mankomunitatea; Uharterko Udala; Zarautzu eta Erroñkariko Batzorde Nagusiak eta Zizur Nagusiko Udalaren Kultur Patroinatua.

laguntzaileak:



Hirugarren mundukoa

“Mugikorrak, mikroondasak, WiFia, *baby* kamerak... Ikaragarria da, haur jaio berri bati buru gainean jartzen diote bere garunean interferitzen ari den mekanismoa. Ez gara konturatzen zer astakeria egiten ditugun. Baina hori hemen gertatzen da eh! European jende pilo batek argi eta garbi du ez duela horrelakorik nahi, ze horrelakoak erabiltzea hirugarren mundukoa da. Joaten zara Normandiara, edo Alemaniara eta ikusten duzu beste modu batean funtzionatzen dutela. Ematen du beraiek ez dituztela produktu horiek nahi, egin egiten dituzte, baina gero hona bidaltzen dituzte, guk hirugarren mundura kaka guztia bidaltzen dugun bezala”.

“Hala ere, jendea jabetzen ari da, jadanik ez da lehen bezain tontoa. Enteratzen ari da uhinak nondik datozen eta nola babestu behar diren haiengandik. Orain askok mugikorra amatatu egiten du gauean, eta telefonikek zailtasunak dituzte antenak jartzeko”.

Bai, irakasleekin, gurasoekin, zuzendareekin... Baina badago arazo larri bat, bai guretzat eta bai osasunarentzat: Celaá sailburua eta Carlos Crespo [Eskola 2.0ren koordinatzailea]. Mehatxu egin zuten, esanez kablearen alde jarriz gero eskolak ordenagailurik ez zuela jaso. Hori dela-eta eskola asko atzera bota da kablea jartzeko eskaeran; hala ere badaude aurre egiten ari direnak.

Kablea 25 ikasleko gela batean ez dela operatiboa esan izan dute.

Kablea jartzea oso gauza sinplea da. Ikasgela bakoitzearaino jarrita dago jadanik; bada, *regleta* batzuekin mahai azpietara pasatzen duzu eta haurra ordenagailutik lurrean dagoen konexiora entxufatzen da. Ez da sekulako “mobida”, gaur egun hori oso erraza da eta baliabideak badaude.

WiFiak osasunean izan ditza-keen kalteez galdezka etorri al zaizkizue?

Hori nahiko garbi dute. Guk eztabaida piztu dugu kontrainformazioa bidaliz, eta nik uste jendeak bere kabuz bilatu duela Interneten informazio gehiago, eta horrela konbentzitu dela. Lehenago gaixotasun bat izan zuen irakasle batek

honela esan zien Hezkuntza sailekoei: “Niri konpainia batek segurtatzen badit WiFiarekin ez zaidala ezer pasako eta seguru bat egiten badit, orduan WiFia- ren alde egongo naiz, baina zein konpainiak egiten du hori?”. Aseguru konpainiek ez dute mikro-uhinen kontra aseguratzen, hori letra txikian dakarte. Orduan, zerbait gertatzen bada zein egingo da erantzule?

Parlamentura joatekoak zarete.

Duela hilabete batzuk eskatu genuen, eta esan ziguten hartuko gintuztela, baina itxaroten ari gara. Ziur gaude orain ez gaituztela hartuko, kontua pil-pilean baitago eta ez zaie komeni. Baina tokatzen zaigu, eta oso ondo prestatuta joango gara, ebidentzian utziko ditugu.

Eta hemendik aurrera zer asmo?

Gure plataforma ez da soilik WiFiaren kontrakoa, uhin elektromagentikoak desagerrarazi, edo behinik behin, kontrolatzea du helburu. Eskola 2.0 jadanik sartuta dago, planak ibilbide bat zuen eta bukatzeaz dago. Jarraituko dugu kablea ipini nahi duten eskolak animatzen eta informazioa ematen; gure lana informatiboa baita, pentsatzen dugu informazioa emanez lortuko ditugula gure helburuak. ■



Airbus A-400M hegazkin militarra. Euskal Herriko industria aeronautikoa buru-belarri dabil honen eraikuntzan.

Aeronautika

Industria militarri loturiko etorkizuna

Euskal aeronautika sektoreak 11.000 enplegutik gora sortu du. Duela gutxira arte abiazio komertzial zibilaren alorrean jardun izan bada ere, laster industria aeroespazial militarri ere lotuko zaio, A-400M Airbusaren proiektuan parte hartuko baitu. Hain justu, proiektu horretako lehen garraio-hegazkin militarrek joan den abenduan egin zuen estreinako hegaldia, Sevillan.

DANIEL UDALAITZ

BATIK BAT Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako aeronautika-sektorearen arduradunek eta horiek sortutako Hegan elkarteak kontu handia izan dute beti industria militarrekin lot ez ditzaten, eta behin eta berriro errepikatu dute elkarteko enpresak arlo zibil

eta komertzialean dihardutela, soil-soilik. Azken aldian, berriz, —joan den azaroan, zehazki— Airbus A-400M garraio-hegazkin militarrek bere lehen hegaldia egin du Sevillan (Espainia), eta agerian utzi du Hegan elkartean bildutako 21 euskal enpresek parte-hartze

garrantzitsua izan dutela egitasmoan. Hortaz, euskal aeronautika sektorearen etorkizuna industria militar aeroespazialari lotuta dago, aeronautika zibilaren aldeko apustu garrantzitsua ahaztu gabe, noski —hala erakusten du A380 proiektuan, historiako bidaiari-hegazkin



Sener aeronautika enpresan motorrak frogatzeko simuladore bat.

zibilik handienez, izandako partaidetzak—.

Airbus A-400M hegazkin militarra eraikitze proiektua

Airbus A-400M programa 2003an jaio zen, partzuego batean bildutako zazpi herrialdek 180 aireontzi erosteko konpromisoa hartu zutenean. Aurrekontua guztira 20.000 milioi eurokoa zen, eta partzuegoa osatzen zuten herrialdeak honakoak: Espainia, Frantzia, Alemania, Turkia, Belgika eta Luxenburgoko. Ordutik hona 184 hegazkin eskatu dituzte: Espainiak 27, Frantziak 50, Alemaniak 60, Erresuma Batuek 25, Turkiak 10, Belgikak 7, Malasiak 4 eta Luxenburgok 1.

Airbus eredu horren lehen hegaldia 2008. urteko hasierarako aurreikusten zen, baina, hainbat arrazoi medio —politikoak zein teknikoak— izandako atzerapenaren ondoren, hasierako aurrekontua asko igo da; 5.000 eta 8.000 milioi euro artean, hain zuzen. A-400M hegazkina Sevillako EADS plantan (Airbus Military-ko kidea) hasi ziren muntatzen 2006ko urrian, eta handik ia bi urtera bukatu zuten lehenengo hegazkina, 2008ko ekainaren 26an, jendaurreko aurkezpen-ekitaldi bat eginaz. Inaugurazio-hegaldia iazko abenduan egin zuen garraio-hegazkin militar erraldoi honek, Sevillan bertan. Orain 3.700 hegal-

di-ordu bete beharko ditu, datozen hiru urteetan, 2012 urtearen bukaera aldera Frantziako ejertzitoari lehen hegazkina eman baino lehen. A-400M garraio-hegazkin militarra munduko hirugarren handiena da, Antonov AN-255 errusiarraren eta Lockheed C5 Galaxy estatubatuarren atzetik, baina beste biak baino moldagarragoa da, eta gai da ezein lurrazal-motetan eta pista laburretan lur hartzeko.

Euskal Herriko 21 enpresa

Hogeita bat euskal enpresa ari dira lanean dagoeneko, Hegan elkarrean bat eginda (Euskadiko Aeronautikako eta Espazioako Klusterra), A-400M Airbus proiektuan. Enpresa horien artean honakoak nabarmendu daitezke: Sener, ITP, Aernova (Gamesa ohia) eta CTA (Teknologia Aeronautikoen Zentroa). Guztien artean, aeroegitura-ekin, motorrekin, sistemekin eta ekipamenduekin lotutako hainbat osagai garatzen lagundu dute.

Euskal enpresek hainbat arlotan egin dituzte ekarpenak aireko erral-

**A-400M hegazkin
militarraren proiektuak
20.000 milioi euroko
aurrekontua du eta 184
aparatua eraikiko dituzte**

doi militar horren eraikuntzan; hala nola, ingeniari, egituraren diseinua, prozesuen berringeniaritza, metalezko osagaiak fabrikatzea, azalen tratamendua eta mekanizatzea, eta egiaztatze-entseguak.

Hegan elkarrean dionenez, ordea, hori ez da hasiera besterik, proiektuari lotutako enpresek etorkizunean ere ekipamenduak eta zerbitzuak ematen jarraitu beharko baitute; eta eredu berri horrek hainbat hamarkadako bizitza izango omen du. Ekarpenerik garrantzitsuenetakoa Zamudioko ITP enpresak egin du, beraiek arduratu baitira presio baxuko turbina, horren irteera konoa, gasen ihes-hodia eta kanpoko zenbait osagai diseinatzeaz.

Hegazkingintza merkatu krisi nabarmenean murgilduta dagoen une honetan, A-400M hegazkinak dibertsifikazioa ekarri dio euskal industriari, eta horrek, Hegan hitzetan, sendotzen eta garatzen lagunduko dio. Elkarrean osatzen duten enpresek 1.229 milioi euro fakturatu zituzten 2008an; kopuru horren %51 EAEn kokatutako enpresetatik dator, eta bere 9.055 langileen %45 enplegatu ditu.

Euskal klusterra bidaiari-hegazkin handienez lanean

EAEn egoitza duen aeronautika sektorea gazte samarra da oraindik. Sener enpresak espazioaren sektorean egindako jardueraz gainera, 80ko hamarkadaren hasieran ez zegoen aeronautika-sektorean ziharduen enpresa bakar bat ere. Azken hamabost urteotan, euskal administrazioaren laguntzaz, gora egin dute aeronautikaren industriako inbertsioek, enpleguek zein ekoizpenak, eta espazio-sektoreko jardura sendotu egin da. 1998an klusterra sortu eta Hegan elkarrean eratu zen. Gaur egun 9.000 pertsonatik gora ari dira lanean sektore horretan, eta fakturazioaren ia %20 I+D+I bideratzen da. EAEn biltzen da Espainiako industria aeroespazialaren %17. EAEnko industria aeroespazialak fakturatutakoaren ia %50 motorren sektoreari dagokio, eta %43 egituren sektoreari. Sistemen eta ekipamenduen sektoreei %5 eta %2 dagokie, hurrenez hurren.

Ipar Euskal Herria, aeronautikaren gune historiko

Ipar Euskal Herrian ere aeronautikaren gune oso garrantzitsu bat dago, Baiona, Angelu eta Biarritz inguruan; eta badirudi etorkizun handia duela. Berrogei bat enpresa ez oso handi ari dira lanean aeronautika sektorearentzat, eta 2.000 enplegu inguru sortu dituzte. Lan hori Dassault Aviation enpresa multinazionalera bideratzen da, batik bat. Hain zuzen ere, Dassault Aviation da Ipar Euskal Herrian enplegu gehien sortzen duen erakunde pribatua, Baionako Merkataritza eta Industria Ganberaren informazioaren arabera.

Sortu zenetik (1936), multinazional horrek arlo militarrean zein espaziokoan dihardu lanean. Frantziako hainbat tokitan ditu enpresak (Ipar Euskal Herrikoa Biarritzen dago), bai eta bost kontinenteetako beste 70 herrialdetan ere. Mundu osoan, enpresa-talde horrek bakarrik diseinatu eta ekoizten ditu borroka eta negozio-hegazkinak. Hain justu, gama altuko negozio-hegazkinak ekoizten dituen enpresa nagusietakoa. Hona hemen bere hegazkin-eredu garrantzitsuenak: Mirage, Rafale, Falcon eta nEUROn. 1975etik hona, beren salmenten %67 esportatu egin dute. Falcon hegazkinak soilik aintzat hartuz, ordea, salmenten %90 esportatu dute. Hain zuzen ere, azken bost

urteotan Falconek betetzen du, batez beste, fakturazioaren %58, eta eskaeren %80.

Dassault Aviation-en Ipar Euskal Herriko egoitza Biarritzen dago, esan bezala. Planta horretan, orain arte behintzat, arlo zibilerako bideratutako lanak egiten dituzte, arlo militarreko baino areago. Hegazkinak mihizatzen eta Falconen fuselajeak bateratzen jarduten dute, beste hainbat pieza eraikitzeaz gainera. Orobat, ekipamenduak eta egitura-osagaiak konpontzeko eta ikuskatzeko

DASSAULT AVIATION



Biarritzeko aeronautika industriaren aspaldiko irudiak. 1936an hasi ziren Louis Bréguet eta Marcel Dassault.

sail bat daukate. Aeronautika-multinazional horrek enplegu asko sortzen ditu Ipar Euskal Herrian, bere enpresako langileak ez ezik azpikontratatuak dituen beste enpresa batzuetakoak ere zenbatu behar baitira. Hala, Biarritz, Angelu eta Baiona inguruan 40 bat enpresa ari dira aeronautikaren sektorean, lehen aipatu dugunez, eta 2.000 bat pertsonari ematen diote lana.

Joan den urtean Technocité izeneko poligonoa sortu zuten inguru horretan, jarduera aeronautikarako. 28.000 metro koadro hartzen ditu, eta Akitania eta Midi-Pyrénées eskualdeek erdibanatzen dute. Bukatzeko, esan daiteke poligono aeroespazial horrek mundu mailako lehiakortasunerako bokazioa duela.

EAEko industria aeroespazialaren bilakaeran, beste hegazkin erraldoi batek ezarri zuen mugarrria: A380ak. Airbus fabrikatzaileen partzuergoaren ustez, inoiz eraikitako bidaiari-hegazkin handien hori da Europako industriaren lorpenik esanguratsuenetakoa, eta euskal enpresek haren ingeniarietza, garapen eta fabrikatze lan ia guztietan hartu zuten parte. Nolanahi ere, ekarpenik handiena Zamudioko ITP enpresak (Industria de Turbo-propulsores, S.A.) egin zuen orduan

ere, zalantzarik gabe, enpresa hori munduko erreferentzia nagusietakoa baita motor aeronautikoentzat presio baxuko turbinak ekoizten.

80ko hasieran ez zegoen aeronautikari lotutako enpresa bakar bat ere EAEn; gaur egun 9.000 pertsonatik gora ari dira horretan lanean

EAEko aeronautika sektoreak A380 hegazkinaren alde egin izanak ehunka milioi euroko inbertsioa ekarri zuen garapen-lanetarako. Proiektua ekoizpen fasean dago une honetan; horrek esan nahi du lana bermatuta dagoela hegazkinak iraungo dituen hogeitau urteetarako. Aeronautikaren arloan diharduten gainerako euskal enpresek ere egin diote ekarpena A380 proiektuari, eta etorkizunean ere egingo diote, osagaiak eta lanabesak eraikiz. ■

Babeslea: Gaindegia



Euskal Herria, garapen jasangarriko unitatea

Euskal Herria Europako Batasuneko hego-mendebaldeko nazioa

Eragile ekonomiko eta sozialen sarea

Zatuz zu ere, EGIN ZAITEZ BAZKIDE. www.gaindegia.org

Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia

gaindegia@gaindegia.org • 943 304 365



Euskal Herria ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Organizazioa sarea elkarlanean baliabideak elkarrekin erabiltzeko
Dokumentazioa gaur eta berritasunak elkarrekin erabiltzeko

Hizkuntza kartara

Nafarroako Kutxak bezeroak ditu Nafarroan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Katalunian. 2004an abian jarritako hizkuntza kudeaketaren giltzarrietakoa da eleaniztasuna, eta bezeroak erabakitzea zein hizkuntzatan izan nahi duen harremana finantza erakundearekin.

SAIOA LABAKA

Argazkia: Josu Santesteban

GIZABIDEZKO BANKA eta Gizarte Erantzukizuna. Kontzeptuok dira Nafarroako Kutxaren estrategiaren giltzarriak. Era berean, hizkuntzen kudeaketa natural bideratzeko tesuinguru egokia ahalbidetzen dutenak dira, Erize eta León solaskideen iritziz. Gizabidezko Bankaren bitartez, bezeroei eskubide berriak aitortzen zaizkie, eta Nafarroako Kutxan parte-hartze zuzena izateko aukera daukate. Esaterako, Kutxak irabazien %30 gizarte ekintzetara bideratzen du, eta bezeroak erabakitzen du irabaziak non inbertitu. Zentzu berean, bezeroak erabakitzen du zein hizkuntzatan jaso nahi dituen komunikazio guztiak. Bezeroek euskararen inguruko egitasmoak diruz laguntzeko aukera ere topa dezakete.

Gizarte Erantzukizunari dagokionez, interes taldeen ikuspegia lantzen ari da Nafarroako Kutxa. Enpresaren interes talde guztiak aintzat hartzea eta horien arteko adostasuna bilatzea da kontua. Bezero euskaltzaleak nahiz erdaltzaleak, langileak, gizarte erakundeak, hornitzaileak, Nafarroako Kutxaren Kontseilua eta gobernu organoak, administrazio publikoa... Talde horiek interes ezberdinak dituzte hizkuntzei dagokienez, eta horiek bateratzen asmatzea da enpresaren zeregina. Nafarroako Kutxarentzat filosofia hori oso garrantzitsua dela jakinarazi digu Xabier Erizek. Hizkuntza kontuak tartean direnean, finantza handiz egin behar izaten da lan, oreka zaindu eta mantentzeko. Izan ere, Nafarroako kasua berezia da, Euskararen Legea medio, kili-kolo dabil kontua beti. Eta egoera



Xabier Erizek kudeatzen du Berrikuntza eta Estrategiaren Garapen saila. 2004an jarri zuen abian Nafarroako Kutxak hizkuntza kudeaketa eta horren koordinatzaile da soziolinguista nafarra. Lorea León filologoa du lankide.

horri erantzun egin behar dio enpresari. Errealitate soziolinguistiko bereziak ere badu zeresana oreka zaintzeko garaian. Sokaren bi muturretan euskara eta gaztelania ikusten dituztenen aurrean, Nafarroako Kutxak —dio Erizek— ezin du alde batera bota baina gehiago tiratu. Hari horretatik, hausnarketa interesgarriak bildu izan ditu Erizek Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politika Sailetik. Hizkuntza kudeaketa interes taldeen ikuspegitik lantzea garrantzitsua dela uste dute han ere. Izan ere, hizkuntzen gaia ondo tratatzeko eremu atsegin eta erosoa lortzen da interes taldeen adostasunarekin. Enpresa munduan ere, hizkuntzak ezarritu edota exijituz, oreka puskatu egiten

da. Katalunian hori horrela izanik, zer esanik ez euskararen kasuan, eta are gehiago Nafarroan.

Solaskideen esanetan, Nafarroako Kutxak lortu du interes taldeen arteko adostasuna, eta horrek indarra ematen dio enpresari, baita etorkizun oparoagoa izateko parada eskaini ere. “Tesuinguru horretan, hizkuntzak erraz txertatzen dira enpresan, eta babesa topatzen dute. Oso garrantzitsua da hori. Hizkuntza txikien kudeaketak beti ibili behar du justifikazio teoriko eta kontzeptualak bilatzen, eta gizabidezko bankan eta gizarte erantzukizunean oinarritutako giroan, hizkuntzen garapen prozesuak bide naturala egin du”.

Zenbat bezerok aukeratu dute hizkuntza?

Nafarroako Kutxak joan den urtarrian plazaratu zituen bezeroek aukeratu-tako hizkuntzei buruzko datuak. Euskara eta komunikazio elebiduna 15.381 bezerok aukeratu zuten, eta 44.613 bezerok, berriz, katalana hautatu zuten. Gaztelania komunikazio hizkuntza duten bezeroak, berriz, 627.288 dira. Nafarroako Kutxak Nafarroan, Euskal Autonomia Erkidegoan, Errioxan, Aragoian, Katalunian, Valentzian, Madrilan, Gaztela eta

	2005	2008	2009
Euskara	4.000	6.947	7.038
Eusk. eta gazt.	0	6.588	8.343
Katalana	40.000	44.080	44.613

Leonen eta Gaztela-Mantxan ditu bulegoak. Ondoko taulan ikus daitekeen bezala, urtetik urtera bezero gehiago dira euskara eta katalana erabiltzen dutenak. Xabier Erizeren iritziz, aintzat hartzeko kopuruak dira hauek, eta datuen irakurketa positiboa egiten dute.

Hizkuntzak aukeran

Bezeroak nahi duen komunikazio hizkuntza aukeratzeko eskubidea du Nafarroako Kutxarekin harremanetan jartzeko, edonon bizi dela ere. Oro har, finantza munduko erakundeek sistema orotarikoak erabiltzen dituzte bezeroei mezuak helarazteko. Nafarroako Kutxak, berriz, ez du horrelako eredurik erabiltzen. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegorako ez du eredu jakin bat sortu, ezta Kataluniarako ere. Txekak, gutunak, kontu laburpenak, eskutitz pertsonalak, publizitatea... bezeroak nahi duen hizkuntzan jaso ahal izateko, sistema informatiko malgua darabil Nafarroako Kutxak.

Euskara, katalana eta gaztelania, paraleloan

Hizkuntza aniztasunaren kontzeptua hasieratik txertatu zuten hizkuntza

planean, elebitasun hutsa baztertuta. Abiapuntua hori izanik, Nafarroako Kutxak euskara, gaztelania eta katalana modu paraleloan garatu ditu, eta ingelesa ere gero eta gehiago garatzen ari da, nazioarteko hizkuntza gisa. "Hizkuntza aniztasunaren ikuspegi hori oso lagungarria izan da euskarari indarra emateko. Hiru hizkuntza paraleloan garatzen dituzunean, batekin egiten duzuna bestearekin ere egin behar duzu, nahitaez. Bestalde, legedia ere lagungarri gertatu zaigu zeregin honetan. Kataluniako legea atera zen (Llei1/1998 de 7 de gener, de Política Lingüística), gero Euskadikoa (123/2008 Dekretua, uztailearen 1ekoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubidei buruzkoa), eta bien eskakizunak zentzuzkoak dira. Nafarroan, berriz, legeak (18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskara-

ri buruzkoa) ez du enpresa lantzen, Nafarroan egiten duzuna borondatezkoa da, bezeroen nahiak asetzeko asmoak gidatuta. Hala, legeak goraka tiratzen zaituenez, katalanari edo euskarari dagozkion hutsuneak betetzen dituzun heinean, beste hizkuntzarekin ere gauza bera egingo duzu, eta alderantziz", adierazi digu Xabier Erizek. Bulegoak dituzten lurraldeetako hizkuntza guztiak garatzen dituzte. Webguneko edukiak ere lau hizkuntzatan daude. Nafarroako finantza munduko erakundeen eta enpresa handien artean, hizkuntza guztiak batera eta maila berean kudeatzen aurrendariak direla pentsa daiteke Nafarroako Kutxan.

Hizkuntza paisaia

Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera da hizkuntza paisaiaren lanketa lurraldean. Nafarroako eremu euskalduneko, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Kataluniako bulegoetako hizkuntza paisaia elebiduna da. Guztira 113 bulego. Iruñerrian, ordea, bulegoetako hizkuntza paisaia eta publizitatea gaztelaniaz egiten dute, oro har. Dena den, aurki, Nafarroako Kutxako bulegoetako langile euskaldunak identifikatzeko, euskarri batzuk izango dituzte mahai gainetan jartzeko. Iruñerrian bertan, langile euskaldunak identifikatzeko aukera ere izango dute bezeroek. Hartara, langile euskaldunekin euskaraz aritzeaz gain, hizkuntza aukeratzeko sistema leku guztietan bera denez, Iruñerriko bezero euskaldunek arlo garrantzitsu askotan bermatua izango dute euren hizkuntza: komunikazio idatzietan, webgunean, banka elektronikoan... ■



Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Getxoztar euskaldunak sarea josten

SARRI ESAN OHI DA euskal hiztunak harreman sareak behar dituela bere moduan euskaraz bizi nahi duenarekin komunikatzeko. Estilo horretan, Getxon (Bizkaia), euskararen aldeko auzolanean hasi ziren joan den otsailean. Herriko 35 eragiletik gora jarri dira harremanetan, bai dantzariak, komunikabideetako langileak, feministak, kirolariak, ikastetxeetako guraso, ume eta irakasleak... *Sarea josten* izena eman diote ekimenari eta horixe helburua, herriko elkarteak eta taldeak ez ezik euskararen alde egiteko

prest diren norbanakoak ere sarea jostera animatzea. Dagoeneko herriko hainbat eragile lanean ari dira, hala nola, Uktest Txalaparta Elkartea, Koska Irratia, Romo Ikastetxea, Getxoko Udal Euskaltegia, Getxo Rugby Taldea, Getxo Kayaka, UK aldizkaria, Txorimalo Gaztetxea, San Nikolas Ikastola eta Lauaxeta AEK Euskaltegia. Apirilari gogotik heldu diote eta sare joste horretan kalean dira hilaren 9tik 24a arte. Hitzaldiak, bertso saioak, musika jaialdiak, erakusketak, kantu poteoa, piropro festa eta mendi irteerak izango dituzte, eta hilabete beroari bukaera emango diote 24ko bazkariarekin.

Arangurenko Udalak eremu mistoan sartzea erabaki du

ARANGUREN, Noain, Galar eta Beraskoain nafar herriek daukate, Euskararen Legea aldatuta, eremu ez euskaldunetik eremu euskaldunera igarotzeko aukera. Kontua da, udal bakoitzak onartu behar duela aldaketa hori. Arangurenko Udalak bozketa egin du, bederatzi zinegotzik baietzkoa eman dute eta hiruk ezezkoa.

BAHEA

Iñaki Martinez de Lunak *Deian* esanak: "Euskara eta gartzelania berdin tratatzen tematzea, arrazoi ekonomiko eta soziopolitikoengatik ordezkatua izan den hizkuntza bere kasa uztea da. Arrazoi horienatik, historian zehar, hizkuntza gutxituak egoera horretara iritsi dira, eta euskara ez da salbuespena. Neurri zuzentzaileak hartzen ez baldin badira, hizkuntza horietako hiztunak beren kasa abandonatuak leudeke, gainerako hizkuntzak irensteko prest dauden hamar bat hizkuntzen ahutzetan. Hizkuntza horiek potentzien botere ekonomikoa, politikoa eta militarra dute alde. Horrek esan nahiko luke Oihanaren Legea onartzen dela hizkuntzaren eremuan".

Ramon Etxezarreta, Hizkuntz Politikarako sailburuorde ohiak *Deian* esanak: "Hasieran langileekiko mesfidantzak izan nituen, eta orain hasia nintzen mesfidantza horiek gaintitzen, denak balekoak direla sentitzen. Eta hurbiltzen ari ginen, beldurrak galtzen. Baina Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza Kultura Sailaren dago, eta sail horretako zuzendaritza ez da nire estilokoa. (...) Zalantzarik gabe, porrot pertsonala izan da hau, eta porrota ezin neza-keen gehiago luzatu, inori kalterik egin gabe".



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Nazio subiranotasuna eta "blindajeak"

PSOE eta CIUK emendakina onartu zuten joan den astean, Espainiako Kongresuko Ekonomia Batzordean, burtsan kotizatzen duten zenbait enpresen blindajea ezabatu eta orain arte beraien zuzendaritzara iritsi ezin izan diren akzionista handiek kontrolatu ditzatela baimenduz. Dena den, "blindajearen kontrako" araudi honen aplikazioa urtebetez atzeratu da. Madrilen onartutako arau berriak bidea ireki diezaioke Iberdrola edo Petronor bezalako enpresa garrantzitsuen kontrol eta deslokalizazioari. Eta ondorioz, beraien egoitza soziala alda dezakete, sortzen dituzten sarrera fiskalen eta enpresa-osagarrietan sortzen duten enpleguaren galera ekarriz. Iberdrolak 500 milioi euro ingresatuko ditu aurten, eta Petronorrek 470 milioi euro, Bizkaiko Ogasunean. Balizko deslokalizazioak edo egoitza soziala aldatzeak, maila fiskalean, milioi euro horien galera suposatuko du foru diru-kutxentzat. Eta horrez gain milaka enplegu zuzen edo osagarri galduko dira.

Beste behin ere, hemen jokoan dagoena da Euskal Herriaren nazio subiranotasun falta, eta ondorioz, baita ekonomikoa ere. Gasteizko eta Iruñeko legebiltzarrak dira gure gizartearen gai ekonomikoak, enpresa mundukoak, sozialak, lan arloak eta fiskalitateari buruzkoak erabaki behar lituzketenak. Gaur, aldiz, Espainiako edo Frantziako parlamentuek erabakitzen dituzte, azken beltzean, euskal gizartearen arau eta lege guztiak. Eta beraz, gure ekonomia eta lan harremanen inguruan ere erabakitzen dute. Eta Espainiako edo Frantziako parlamentuen gehiengoaren interesak ez dira Euskal Herriaren eta bere gizon-emakumeen gehiengoaren igualak. Egoera honek hausnartzera eraman behar gintuzke agente politiko, sozial, sindikal eta enpresarialak, Euskal Herria subirano eta solidario baten alde lan egiteko.

Juan Mari Arregi

XABIER LETONA

MALTZAGATIK

Ez da justiziarik Espainian

EGUNKARIA AUZIKO absoluzioaren ondoren, orain helegiteen unea dator eta AVTk eta Dignidad y Justicia horixe egingo bide dute Espainiako Auzitegi Gorenean. 12 eta 14 urteko zigorrak eskatzen dituen hori egitera behartua dagoela pentsa liteke. Eta helegite batean edozer gerta liteke, baina kasua ikusita, ez dirudi Auzitegi Nazionaleko Zigor alorreko Lehen Salak emandako epaia atzera botatzea samurra izango denik.

Iñaki Uri, Martxelo Otamendi, Joan Mari Torrealdai, Xabier Oleaga eta Txema Auzmendi absolbituak atera dira. Epaietan zehar oso argi ikusi da ez zegoela frogarria bakarrik auzipetuak zigortzeko. Fiskalak berak ere horixe bera azpimarratu zuen. Epaiaketa aurretik ere Auzitegi Nazionalan epaia absoluzioan bukatuko zen ustea nagusitua zegoen, eta hala ere, bertako iturrien arabera, hobe zen epaiaketa egitea, modu horretan balizko helegite baten aurrean Auzitegi Gorenak zailago izango zuelako akusazioen helegitea atzera botatzea. Jakina, zurrumurru horiek baziren, baina Auzitegi Nazionalaren izaera eta aurrekariak kontuan hartuta, ez zegoen guztiz fidatzerik epaian aterako zenaz.



Absoluzioaz gain epaiak zalantzan jartzen du *Euskaldunon Egunkariaren* itxieraren konstituzionaltasuna. Epaiaren arabera, erabilitako prozedura enpresa normalentzat delako eta, oinarritzko askatasunei lotutako jardueran ari denez, egunkari bat ez delako enpresa normal bat. Bere garaian, *Egunkaria* ETArekin lotua zegoen ala ez berau itxi barik ikertu zitekeela dio epaiak.

Aurrera begira, pentsatzekoa da hari honetatik tiratuko dela kalte ordainen prozedura luzeari ekiteko, azkenean Auzitegi Gorenak epaia berresten badu.

Epaimahaiak har zezakeen tarteko bideaz ere asko esan eta idatzi da, baina epai honek ez du tarteko biderik uzten eta Auzitegi Gorenak absoluzioa berresten badu, Estatua kalte ordainak ematera behartua egongo

da. Eta ez litzateke txantxetakoa. *Egunkaria* itxi eta ehundik gora langile kale gorrian geratu ziren; atxilotuak, torturatuak, espetxeratuak; milaka euskaldunen oinarritzko eskubideak zapalduak... Diruak ezin du hori guztia konpondu, baina ekin beharreko bidea da.

Eta, hara paradoxa, sumario nagusia absoluzioarekin itxita, Torrealdai, Uriak eta Auzmendi honengatik baino zigor handiagoa jaso dezakete oraindik irekita dagoen auzi ekonomikoagatik: 26na urteko-espetxe zigorra eta 32,8 milioi euroko isuna eskatzen zaie. Joxe Mari Sors, Ainhoa Albisu, Begoña Zubeltzu, Fernando Furundarena eta Mikel Sorozabal ere auzipetuak daude auzi honetan. Pentsatzekoa da zigor handiak gaitzagoak direla aurrerantzean, baina hau ere ikusgai dago.

Kapitulu hau, oraingoz, ondo bukatu da. Beste batzuek ez dute zorte bera izan: Haika-Segi, AAB eta 18/98 auzikoak espetxean dira Espainiako justizia independenteak ENAMeko guztiak ETAkoak bihurtu zituelako. Eta horiez gain Udalbiltza-koak, Batasunakoak... asko dira kartzelan kartzelaren zain. Pozik izateko arrazoiak badira, baina oraindik ez, oraindik ez da justiziarik Espainian.

www.erein.com

Nobela beltza

erein argitaletxearen eskutik



Xahmaran
Jon Arretxe



Heriotzarako jantzia
Donna Leon



Aurpegiak gabeko hiltzaileak
Heinrich Markell



Gaiaren sakonean
Haruki Murakami

erein

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Zabbaleen jendea, Kairoko zaborren aprobetxatzaileak

70.000 dira eta haien izenak, Zabbaleen, arabieraz “zaborretako jendea” nahi omen du esan. Goizero jaisten dira Egiptoko hiriburuko kaleetara hiritarren hondakinak biltzera, gero beren auzoetara eraman, bereizi eta %85 birziklatzeko lantegietara bideratzeko. Zaborra dute bizibide.

1950EKO HAMARKADAN HELDU ziren hego Egiptoko kristau kopto-
ok basamortutik, lehorteari eta
goseari iheska. Ogia nolabait irabazi
behar eta tratua egin zuten ordura
arte Kairoko hondakinak biltzetik
bizi ziren Wahi-tarrekin. Hauei
dirutan eta paper-kartoi usatueta
ordaindutako prezio baten truke
eskuratu zuten zabbaleendarrek
zaborren “negozioa”. Gaur arte.

Badira munduan beste herritar-
ren hondakinetatik bizi diren tribu
eta enda gehiago. Denen artean
fama berezia eskuratu dute Kairoko
zabbaleendarrek, pare bat film
dokumentaleko protagonistak izate-
raino, *Marina of the Zabbaleen* (Zab-
baleendarren auzo dotorea) eta *Gar-
bage Dreams* (Zaborrezko ametsak).

New Internationalist aldizkarian
Jehan Casinader-ek eman ditu jende
horien albisteak artikulua batean:
“Irabaziz batera ikasi. Kairoko
‘zaborretako jendea’ bizi maila
hobetzen ari da”. Askoz sakonago
aztertu zuen zabbaleendarren feno-
mena Jessica Boyd-ek *Geographical*
aldizkari ingelesean: “Kairoko
zaborretako jendea. Hiriburuko en-
tzako ia ikusezinak diren arren, zab-
baleendarrek hondakinak biltzen
dizkiete, sailkatzen eta birziklatzen,
funtsezko zerbitzua eskainiz”.

Goizero, eguna zabaldu baino
lehen abiatzen dira gizon eta muti-

ko zabbaleendarrak Kairoko karri-
ketara, kamionetak edo asto-karro-
ak hartuta, hiriburuko biztanleek
etxe atarietan utzi dituzten zaborrak
biltzera. Atez ate, zabor guztiak,
organikoak bezala besteak.

Etxera ekarrita, emakumeen eta
neskatoen lana izanen da hondakin
piletan arakatzea. Alde batera organi-
koak, etxeetan dituzten txerrien baz-
karako. Bestetik, birziklagarria den
gainerako ia guztia. Dena eskuz apar-
tatu, bildu eta garbitzen da, ahal dena
bertan birziklatzeko eta beste gehiena
kanpoko merkatariei saltzeko.

Kairo megapolian metaturiko 18
milioi arimen hondarren artean bizi
diren zabbaleendarrak txiro bizi
izan dira urteotan, mespretxatuak
baino gehiago ahaztuak. Haien arte-
ko %70 analfabetoak dira. Baina
inori ez zaio burutik pasa aitona-
amonen basamortura itzultzerik.
Ekonomia informalean –*beltzean*–
ari diren beste askok bezala zabb-
leendarrek ere bizimodua aurrera
ateratzea lortu dute, bizi diren auzo-
etara argindarra eta iturriko ura
ekartzea lortu dute. Eta gizartearen
behar nagusi bat asetzen dutelako
ohorea ere bai.

Geographicaleko erreportajea kon-
tatzen zaigunez, egunean 4.000 tona
zabor biltzen dute, Kairok sortzen
duen guztiaren herena. Horiek beren
sei auzoetan sailkatuko dituzte. Han-

Stefano Marmoratoreen irudian, Kairoko
Muqattam auzoko zabbaleendar familia bat
etxeko atarian, gaika sailkatutako
hondakinez inguratuta. Zabbaleendarrek
doan jasotzen dizkiete hondakinak
kaletarrei, bizimodua birziklatzetik ateratzen
dute. Orain Egiptoko gobernua obra
publikoetako multinazional batzuei eman
nahi die hondakinen kudeaketa, aldi berean
herritarrei tasak ordainaraziz. 2002an egin
zuen gobernua lehen ahalegina eta lau
konpainia hasi ziren lanean. Kairoko
hiritarrek, protestan, ostu edo erre egin
zituzten hondakinentzako konpainiek
ipinitako kontainerak: nahiago dute orain
arte bezala zabbaleendarrek zaborrak atez
ate biltzea. Lau korporazioetatik hiruk etsita,
AMA italiarra baizik ez da geratu eta honek
Zabbaleen jendea kontratatu du.

diena Moqattam da, Kairotik Nasr
Cityrako autobide bazterrean 25.000
arima biltzen dituen.

Moqattam zabortegi handi bat
da, Egiptoko bero astunetan dena
kirats. Euli, arratoi eta katurik ez da
falta, baina behi, ardi eta ahuntzik
ere ez. Zerriak etxeetan edukitzen
dituzte, zaborretik apartatutako
organikoz –txerri-janez– elikatuta.

Kiratsaz nabarmendu dio kazeta-
riak bertan bizi den Ezzat Naem-i.
“Hona datozenei galdetzen diet
kiratsaz. Eta gero esaten diet ‘baina
zuen zaborra da, ez gurea!’. Ez
baduzue usain hau maite, nire jen-
deari esango diot ez jaisteko Kairo-
ra hiruzpalau egunez eta orduan
ikusiko dugu”.

Teknologia atzamarren puntan

Zabbaleendar guztiak ez dira berdin
bizi, han ere zakurrak hankutsik.
Gure arteko ijitoen artean bezala
–izena Egiptotik hartu zuten,
horra– zorte hobea edo negozioe-
tarako trebezia handiagoa izan dute-
nek etxebizitza dotoreagoak dauz-
kate, hondakinen katean lanbide
erosoagoak, materialen salerosle
edo bitartekari. Aldiz, txiroenak jar-
dun ohi dute Kairon goizero zabor
bilketan, berdin Muqattameko
karriketan eskuzko bereizketan.

Baina hauek ere ez dira etxoletan
bizi, hormigoizko blokeetan baino.



Familiak goiko estaietan bizi dira; Jessica Boydek zertifikatu du barrutik oso txukun dauzkatela. Etxeok atzeko aldean ukuiluak edukitzen dituzte, non gizentzen dituzten bi edo hiru dozena zerri, txikiak eta beltzak, hondakinez bazkatuak.

Eraikinon bebarruetan eta kaleetan aritzen dira zakarren artean lanean emakumezkoak. Egunean 11 ordu edo gehiagoz. Alde batera apartatzen dituzte plastikoak, bestera beirakiak, metalak, kartoiak, janziak, hondar organikoak... Berezitakoak plastikozko zorro handietan sartu eta ilunabarrean eramango dituzte saltzera.

Lan gogorra eta aldi berean tre-bezia handia eskatzen duena.

Eskuz egin beharrekoa. Zabba-leendarrek hamarkadotan gauza asko berriro dituzte, astoak gero eta gutxiago darabiltzate, argindarrez hornitu dituzte etxeak, baina bada aldaketa bat onartu ez dutena: eskularruak. Emakumeek uko egiten omen diete, dio Jessica Boydek: "Nahaigo dute hepatitisa harrapatzeko arriskuan aritu eskularruak janzteia baino, lana mantsoztzen dizute eta gainera horien erruz bildu gabe utzi dezakezu baliagarri den zerbait".

Moqqatameko salerosketak minoria batek kontrolatzen ditu, biztanleen %30ek, familia bakoitza gai batzuetan bereizituta. Ikustekoak dira horko karrika, estrata, karkaba eta eskaratzak. Koloreka sailka-

tutako plastikozko mendiak, paper eta kartoi pilatu eta ondo estutuz egindako sorten kontra. Txoko batean kautxukietan espezializatuta daude. Hurrengoan zolarik gabeko oinetakoetan. Harantzagokoan plastikozko upeletan bildurik dauzkate botilen txapak, aluminiotarako urtzeko prest. Yogur poteak ere ez pentsa nolanahi apartatu dituztela: zaku batzuetan polietilenoazkoak daude eta beste batzuetan polipropilenoazkoak, ezberdinak izaki.

Ikusten denez, auzoa girotzen duen kiratsaren eta begirada zorabiatzen duen kaosaren atzean gain ezagutza oso zehatza dago. Hondakinen teknologia sofistikatu. Hurrengo urratsetan gaiok urrutiko fabriketara joango dira, produktu berrietan usatzeko.

Orain hondakinen eta lan publikoen multinazionalak ere zabba-leendarren eremuan muturra sartu nahian dabilta. Egiptoko gobernuak hiriburuaren irudia itxuratu nahi du, modernotu, eta konpainia handientzako, berriz, hondakinen kudeaketa diru iturri oparoa da. Hori bai, gaikako bilketa eta multinazionalen negozioa beti bizi dira elkarrekin haserre.

Garbage Dreams errodatzerakoan hiru zabbaleendar gazte eraman zituzten Galeseko konpainia handi bat bisitatzen, jende horren eta mundu modernoaren kontrastea irudikatzen. Nabil, 18 urte, ez zuten asko inpresionatu: "Hemen teknologia dago, bai, baina prezisiorik ez". Galeseko lantokiak hondakinen %20 baino ez baitzuen lortzen birziklatzea. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Iñaki Mendiguren

Hedabideen argi-itzalak

Nik ez diet hedabideei entretenimendua eskatzen, horretarako baditut-eta aukera hobeak inguruan. Baina Informazioaren Gizartean bizi gara, eta axola zait inguru hurbilean, urrutixea-go eta oso urrun nola bizi garen jakitea; beraz, hedabideen kontsumitzaile iraunkorra naiz. Hala ere, aitor dut damuz gero eta atxikimendu urriagoa dudala batzuekiko; edo zehatzago esanda, gero eta kritikoago eta selektiboago ari naizela bihurtzen, buru-osasunaren izenean!

Nahiz eta goizean Herri Irratiko tertulia ere entzun, Euskadi Irratia da gurean erreferentea, eta saio onak eta profesional bikainak badituela aitortuta, itzaltzeko arrazoiak ere ematen dizkit. Badakit nekez lortuko duela, euskara hutsezko ia bakarra izanik, denon gustua egitea, eta ez dut espero nire nahiak bete-betean asetzea. Zoritxarrez, batere ez zait interesatzen kirola entzunkizun gisa, eta gehiengoaren kontra banoa ere, kirolaren presentzia neurrigabea eta jasangaitza gertatzen zait askotan. Off!

Programa batzuen errepikapena gogai-karri samarra da, eta albisteen errepikapena sufrikario dezentea! Eguerdiko albistegi nagusia entzun, eta ondorengo orduetan albiste horietako asko berdin-berdin entzun behar berriro. Off!

Atsegin ditut tertuliak, baina solaskideengandik zerbait ikasteko dagoenean. Albisteen azterketa edo analisisa interesatzen zait, batez ere; beraz, gogoz entzuten ditut beren gaian (hezkuntzan, ekonomian, nazioarteko albisteetan, zuzenbidean...) adituak direnak, eta horrelakoen ekarpenak zaizkit benetan gustagarri. Aurrekontu-arazoak edo ez dakit zer-nolako planteamenduak medio, honetan atzera egin delakoan nago. Aldizka pentsatu izan dut merke-zurrean erositako generoa sartzen digutela euskaradunoi.

Adin-kontua izango da agian, baina ez nau oso betetzen irratigintzan zabaldu den estiloak: dena arin eta labur egin beharra, erritmo bizkorra, burrundara, zizka-mizka, flasha... umore behartua, txantxa-giroa eta alaitasun artifizial samarra, uztail-abuztuan areagotzen den gaitza! Horrek ere bultzatu ohi nau itzali eta musika entzutera.



DANI BLANCO

ETB1. EITBk baditu nazioarteko kronikari onak, eta lehen saiatzen nintzen iluntzeko albistegia gutxienez ikusten. Baina gure Herriaren egoera politikoak ematen du bestela ere atsekabea eta bihotz-mina, gainera alferrikako beroaldiak pasa behar izateko telebistaren aurrean; beraz, azken hilabeteotan BBC World-en albistegia irensten dut. Emaztea pozik. Igandeetan *Teknopolis* zaintzen dugu. Ez dut esan nahi beste ezer ez dagoenik ganorazkorik, baina astirik ez. Eta film-zaleak gara, baina zinemana, pantaila handian.


Euskarazko prentsa idatziaz ditudan beharrak asetzen dituzte ogiarekin batera etxean sartzen den *Berriak*, eta ARGIA aste-kari honek. Bestalde, aspalditik dut gogoko *Le Monde Diplomatique*: Enpresa horren hilabetekaria, atlasak (Atlas Geopolítico 2010...) edo Ignacio Ramoneten liburuak material oso baliotsuak iruditzen zaizkit

Adin-kontua izango da agian, baina ez nau oso betetzen irratigintzan zabaldu den estiloak: dena arin eta labur egin beharra, erritmo bizkorra, burrundara, zizka-mizka, flasha... umore behartua, txantxa-giroa eta alaitasun artifizial samarra, uztail-abuztuan areagotzen den gaitza!

munduaren nondik norakoa ezagutzeko. Esan gabe doa gaur egun Internetek informazio ugari jartzen duela eskura Ezkioko tontor honetan ere, eta beste batzuen artean (*Gara*...), bada webgune bat egunero bisitatzen dudana: www.rebelión.org. Luxuzko kolaboratzaileak ditu (Noam Chomsky eta beste asko) eta normalean hedabide handietan ez bezalako azterketak eta ikuspegiak eskaintzen ditu, ez gehiegi baina baita Euskal Herriaz ere. Hor bertan jakingarria zait Pascual Serranoren lana, Espainiako hedabide handien amarruke-riak salatzen dituen, eta irakurri beharrekoa bere *Desinformación. Cómo los medios ocultan el mundo* liburua. ■

ASTE HONETAKO

zozketa




Ellaury Hotela

Asteburu pasa
2 lagunentzat

Zeanuri BIZKAIA

www.ellauryhotela.com

1




Chillida-Leku Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Jauregi auzoa, 66
Hernani, GIPUZKOA

www.museochillidaleku.com

2



Inguru Abentura

2. mailako arroila jaitiera
3 bikoterentzat opari

San Juan kalea, 18
Albeniz, ARABA

www.inguruabentura.com

3



Txuri Urdin

2 harpidedunentzat launa
sarrera opari

Anoetako pasealekua, 24
Donostia GIPUZKOA

www.eltxuri.com

4



Jimmy Arrabit,
Dirty Pink Ladies,
Hotsak dantzan
eta Four friends

2 CD sorta opari

Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2224. Argia)

ANDRA MARI JATETXEA

- Olatz Gerrikabeitia Berrizbeitia (Berriz)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Josune Irastorza Aizpeolea (Zegama)
- Oihana Goiriena Foruria (Gernika-Lumo)
- Imanol Alvarez Gartzia (Bilbo)
- Edurne Lazkanoiturburu Manterola (Hondarribia)

888 TXISTE

- Miren Garcia Dalmau (Hernani)
- Aitor Duñabeitia Martin (Durango)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Patxi Arostegi Jimeno (Bilbo)
- Fernando Ramirez Sanchez-Paniagua (Bilbo)
- Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)
- Eihar Egaña Garcia (Donostia)

STOCK 13

- Jokin Ginea Kortajarena (Galdakao)
- Maria Jose Etxaide Ibaguren (Bergara)
- Salba Pagegi Arriola (Markina-Xemein)
- Mamen Uharte Azpirotz (Leitza)
- Eider Susperregi Auzmendi (Gasteiz)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

kirolaz ba**da**kit



Azpeitiarra, 2004an egin zuen debuta, atzelaria da. Zein da?

- Mikel Labaka
- Mikel Aranburu
- Ronaldinho

**Kirolzale
amorratua zarela
erakusteko prest?**

Hemen dituzu
1.500 galdera txartel
eta CD-ROMean.

**7 urtetik
gorakoentzat**

PREZIOA

15€

**ARGIAren
harpidedunek
-%15**



ESKAERAK
943 37 15 45
www.argia.com
denda@argia.com